



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko ekainaren 11n

54 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- SEPES enpresa publikoak burutzen dituen edo aurreikusi dituen jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- SEPES enpresa publikoa Tuterako Las Labradas poligonoan burutzen ari den jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- SEPES enpresa publikoa Tafallako La Nava poligonoan burutzen ari den jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- SEPES enpresa publikoa Villatuertako San Migueleko poligonoan burutzen ari den jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- SEPES enpresa publikoa Iruñerrian burutzen ari den jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- SEPES enpresa publikoak Nafarroako Komunitatean etxebizitzak eraikitzeko lur urbanizatua sortzeko burutzen dituen edo aurreikusi dituen jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Mahastiak birlandatzean jatorrizko izendapenak arautzen duen araudiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Purinekin zerikusia duten zenbait gairi buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Zerri-sektorearen krisialdiak Nafarroan duen eragina eta horri aurre egiteko balizko jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 28470-3 lerroaren aurrekontu betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 28550-5 lerroaren aurrekontu betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 55 urte baino gehiagoko Laguntza Espezializatuko medikuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Olagueko saihebidetarako obrak geratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Ekialdeko ingurubidearekin Burlata lotuko duen bide-zatiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Ebro aldeko Erriberan TVE-Navarraren seinalea hartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- “Ogibiderik gabeko nafartarren egoera aztertzeko dirulaguntza” izeneko kontusailaren betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Bidasoa ibaiaren inguruneke uren, jalkinen eta arrainen kalitatea hobetzeko aurreikusten diren jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Bidasoa ibaiko zenbait tokitan atzemandako kutsadurari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza arloetarako Estatuako Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako inbertsioei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Zenbait obra burutzeko Estatuak 1999rako hitzartutako aurrekontuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- INEMek Osasunbideari ordezkapenak egiteko emandako zerrendari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Pablo Sarasate Institutuko UBiko ikasleen eskola-garraioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Iratzeko museo etnologikoan fonoteka ez jartzeko arrazoiei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Eskualde mistoko errepideetako panelei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Biosegurtasunaren gaineko Foru Batzordeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Osasun Departamentuko zenbait aurrekontu kontusailen betetze mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Pertsona seropositiboan edo GIB-Hiesarekin bizi direnen erregistro nominalik egin ote den itauntzen duen galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Kirurgia-ebakuntza egiteko itxaron-zerrendan dauden gaixoen kopuruari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Iruñeko espetxeko sukaldeko profesionalei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Servirecord enpresarekin hitzartutako zentroen instalazioetan eta altzarrietan atzemandako akatsei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Osasun Departamentuan langileak sustatzeko formulei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Ikastetxeen eskola-jardunari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- 1998ko ekitaldian baso-sute gehiago izateari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Zenbait komunikabideetan agertutako enplegu publikoko iragarkiei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Sotos de Traslapiente-n zentral hidroelektriko bat jartzeko proiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Osasun zentroek jaiegunetan duten funtzionamenduari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Lan Osasunari buruzko Foru Lege proiektua bidaltzea atzeratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).

F saila:
GALDERAK

SEPES enpresa publikoak burutzen dituen edo aurreikusi dituen jarduketei buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak SEPES enpresa publikoak burutzen dituen edo aurreikusi dituen jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du SEPES enpresa publikoa Nafarroan burutzen ari den eta burutu asmo dituen jarduketei buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1.- Egindako jarduketaz gain, La Nava poligonoa Erriberri alderantz handitzeko hastapeneko lanak egin dira, baina SEPESek ez du inolako itunik sinatu ukitutako entitateekin.

2.- SEPESek jarduketa bakoitzari buruzko bideragarritasun tekniko, urbanistiko eta ekonomiko azterlana egin zuen. Ondotik, poligono bakoitzak ukitutako lurak erosi zituen desjabetzape horien onuradun gisa, Nafarroako Gobernuak desjabetzen duen administrazio den aldetik tramitaturiko desjabetzape espedienteen bidez.

Salbuespen bakarra La Nava poligonoeko jarduketa izan da, bertako lurak Nafarroako Gobernuak erosiak baitzituen, eta gero SEPESi transmititu zizkion.

SEPESek Nafarroan egindako hirigintzako agiriak ondokoak dira: Comarca-1, Tuterako Las Labradas, Tafallako La Nava, Villatuerta eta Castejongo poligonoetako proiektu sektorialak. Azkena, Castejongoa alegia, orain dela gutxi erosi du Nafarroako Gobernuak, berehala sustatzeko asmoarekin. Aipatu proiektu sektorialen urbanizazio proiektuak ere egin ditu.

SEPESek Nafarroan kontratatu dituen obrak egindako jarduketei dagozkie, hau da, Tafallako La Nava, Comarca-1, Villatuerta eta Tuterako Las Labradas poligonoei.

Iruñean, 1998ko azaroaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

SEPES enpresa publikoa Tuterako Las Labradas poligonoan burutzen ari den jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak SEPES enpresa publikoa Tuterako Las Labradas poligonoan burutzen ari den jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du SEPES enpresa publikoa Tuterako Las Labradas poligonoan burutzen ari den jarduketei buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1.- Las Labradas poligonoa Nafarroako Gobernaren eta SEPESen artean sinatutako hitzarmen markoaren arioren egin da.

2.- Ondokoa da lurzoru erabilgarria (lurzatiak):

	Industriakoa guztira	Saldua	Erabilgarria
Las Labradas poligonoa	26.30	6.39	19.91 (Ha)

Poligonoko azpiegiturak (sarbideak, ur hornidura, saneamendua, energia elektrikoa, telefonia etab.) plan sektorialaren eta urbanizazio proiektuaren bidez konpondu ziren; zerbitzu guztiak ditu beraz.

3.- Gaur egun poligonoko fase bat (% 50) osoz dago urbanizatuta, eta hori betetzear dagoenean ekinen zaio bigarren fasea urbanizatzeari (eskubide guztiak daude hartuta).

Iruñean, 1998ko azaroaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

SEPES enpresa publikoa Tafallako La Nava poligonoan burutzen ari den jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak SEPES enpresa publikoa Tafallako La Nava poligonoan burutzen ari den jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du SEPES enpresa publikoa Tafallako La Nava poligonoan burutzen ari den jarduketei buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1.- La Nava poligonoa Nafarroako Gobernuaren eta SEPESen artean sinatutako hitzarmen markoaren arioren egin da.

2.- Ondokoa da lurzoru erabilgarria (lurzatiak):

	Industriakoa guztira	Salduta	Erabilgarria
La Nava poligonoa	13.30	8.39	4.91 (Ha)
La Nava handitzeko proiektua	30 (gordinak)		

Poligonoko azpiegiturak (sarbideak, ur hornidura, saneamendua, energia elektrikoa, telefonia etab.) plan sektorialaren eta urbanizazio proiektuaren bidez konpondu ziren; zerbitzu guztiak ditu beraz.

SEPESek poligonoa handitzeko proiektua du, une honetan aztertzen ari dena, ondoren prestatu eta Udalez gairako eragineko plan sektoriala tramitatzeko.

Handitze horrek Tafalla eta Erriberriko udal mugapeak ukituko ditu, guztira 30 bat hektarea.

3.- Asmoa da plan sektoriala heldu den urtean tramitatzea.

Iruñean, 1998ko azaroaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

SEPES enpresa publikoa Villatuertako San Migueleko poligonoan burutzen ari den jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak SEPES enpresa publikoa Villatuertako San Migueleko poligonoan burutzen ari den jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du SEPES enpresa publikoa Villatuertako San Miguel poligonoan burutzen ari den jarduketei buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1.- Villatuertako poligonoa Nafarroako Gobernuaren eta SEPESen artean sinatutako hitzarmen markoaren arioren egin da.

2.- Ondokoa da lurzoru erabilgarria (lurzatiak):

	Industriakoa guztira	Salduta	Erabilgarria
San Miguel poligonoa	16.7	1.58	15.12 (Ha)

Poligonoko azpiegiturak (sarbideak, ur hornidura, saneamendua, energia elektrikoa, telefonia etab.) plan sektorialaren eta urbanizazio proiektuaren bidez konpondu ziren; zerbitzu guztiak ditu beraz.

3.- Gaur egun poligonoa oso-osorik dago urbanizatuta, eta eta SEPESek ez du aurreikusita alderdi horretan jarduketarik.

Iruñean, 1998ko azaroaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

SEPES enpresa publikoa Iruñerrian burutzen ari den jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak SEPES enpresa publikoa Iruñerrian burutzen ari den jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du SEPES enpresa publikoa Iruñerrian burutzen ari den jarduketei buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1.- Comarca-1 poligonoa, Agustinos izenez ezagutzen dena, Nafarroako Gobernuaren eta

SEPESen artean sinatutako hitzarmen markoaren aiora egin da.

2.- Comarca-1 poligonoak 720.00 m² inguru ditu lurzatitan, eta horiek denak eskuratzeko aukera agortu egin da ekitaldi honetan, industri lurzati guztiak salduta baitaude edo saltzeko aukera sendoa baita.

Poligonoko azpiegiturak (sarbideak, ur hornidura, saneamendua, energia elektrikoa, telefonia etab.) plan sektorialaren eta urbanizazio proiektuaren bidez konpondu ziren; zerbitzu guztiak ditu beraz.

3.- Ez dago SEPESek Iruñerrian beste jarduketarik egiteko aurreikuspenik. Comarca-1 poligonoari buruz esan beharra dago tramitatzen ari dela Navarra de Suelo Industrial, S.A.k handitze txiki bat (200.000 m² lurzatitan) egitea Orkoieneko mugapearen mendebaldean. Izan ere, plan sektoriala orain dela gutxi onetsi da behin-behinekoz, eta gutxi barru onetsiko da behin betikoz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 11n

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

SEPES enpresa publikoak Nafarroako Komunitatean etxebizitzak eraikitzeko lur urbanizatua sortzeko burutzen dituen edo aurreikusi dituen jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak SEPES enpresa publikoak Nafarroako Komunitatean etxebizitzak eraikitzeko lur urbanizatua sortzeko burutzen dituen edo aurreikusi dituen jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du SEPES enpresa publikoak Nafarroako Komunitatean etxebizitzak eraikitzeko lur urbanizatua sortzeko burutzen dituen edo aurreikusi dituen jarduketei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduketa burutzen ari dira Nafarroan SEPESekiko hitzarmen markoaren baitan? Zenbat hitzarmen izenpetu ditu SEPESek aipatu pro-

zesuek ukitutako toki entitateekin eta zer jarduketatarako?

SEPES ez da inongo jarduketarik egiten ari Nafarroako Gobernuarekin edo udalekin sinaturiko itunen bidez etxebizitzak eraikitzeke lurretan.

2. Etxebizitzak eraikitzeke lur urbanizatua sortzeke hirigintza bideragarritasunari buruzko zenbat azterketa egin du SEPESek gure komunitatean? Zenbat lur erosi ditu aipatu enpresak urbanizatzeko gero, etxebizitzak eraikitzeke? Zenbat hirigintza-dokumentu prestatu ditu SEPESek Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean, etxebizitzak eraikitzeke lur urbanizatua sortzeke? Zenbat obra kontratatu ditu zuzenean SEPESek Nafarroan, etxebizitzak eraikitzeke lur urbanizatua sortzeke? Aurreko galderetan sartutako jarduketa bakoitzari erantzun zehatza ematea eskatzen dut.

Ez dago inon jasota SEPESek hirigintza bideragarritasunaren azterketa egin duenik etxebizitzetarako lurzorua sortzeke buruz. Ez dago inon jasota Nafarroan lurzorua erosi denik horretarako, ez eta hirigintzari buruzko agiriak idatzi izan edo etxebizitzak egiteke obrak kontratatu direnik ere.

Enpresa publiko honek industri lurzoruaren arloan aritu da nagusiki gure Komunitatean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 13an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza: Yolanda Barcina Angulo

Mahastiak birlandatzean jatorrizko izendapenak arautzen duen araudiari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak mahastiak birlandatzean jatorrizko izendapenak arautzen duen araudiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteke galdera egin du mahastiak birlandatzean jatorrizko izendapenak arautzen duen araudiari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Jatorri-izendapenetarako mahastiak birlandatzeko eskubideen eskualdatzea –Nafarroa jatorri-izendapenean izan, nahiz Errioxa jatorri-izendapenean– martxoaren 21eko 115/1991 Foru Dekretuan dago araututa.

Birlandatzeko eskubideen eskualdatzea, jatorri-izendapen eta autonomi erkidegoen artekoa baldin bada, hurrengoek arautzen dute:

Europako Kontseiluaren 3302/97 Erregelamendua, azaroaren 15ekoa.

2658/1996 Errege Dekretua, abenduaren 27koa.

1997ko ekainaren 19ko Ministerio Agindua.

Europako Kontseiluaren 1417/97 Erregelamendua, uztailaren 22koa.

2.- Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroak (EVENAK) du ardura Nafarroa eta Errioxa jatorri-izendapena duten eremuetako mahastien katastroa kontrolatu eta horren bilakaera jarraitzeko. Katastro horrek, etengabe eguneratzen denez, mahastiz landatutako lurzatiak kontrolatzen ditu, eta baita birlandatzeko eskubideak indarrean dituzten lurzatiak ere.

Etengabeko koordinazio informatikoa dago Lurralde Aberastasunaren Zerbitzua eta mahastien katastroa eta kontseilu arauemaileen artean.

Mahastien katastroaren bulegoak eskubideak dituztenei soilik ematen dizkie argibideak, eta aholkuak ematen dizkie: eskubide horiek nola izaipatu, noiz iraungitzen diren, eta abar.

Lan horretan tokian tokiko nekazaritza ganbarek laguntzen zioten; horiek, orain, Nafarroako Nekazaritza Ganbari buruzko Foru Legea onetsi eta bihurtu dira barruti nahiz eskualdeko nekazari eta abeltzainak laguntzeko Harremanen Bulego.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 12an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Purinekin zerikusia duten zenbait gairi buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak purinekin zerikusia duten zenbait gairi buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeari atxikitako Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du purinekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Hona hurrengo taulan, eskaturiko datuak

Nekazaritza Ganbara	Ustiatagia	Errolda, guztira	Hazitako arrak	2-6 hilabeteko emeak	6-12 hilabeteko emeak	6-12 hilabeteko arrak	12 hilabete baino gehiagoko emeak	12 hilabete baino gehiagoko arrak	Gizentze-koak	Purinak Tonak/urteko
1	1.129	46.559	20.222	509	2.897	10	17.325	246	8.085	313.697
2	57	12.589	1.698	80	306	11	1.392	54	6.479	33.221
3	108	23.795	4.313	12	643	2	3.670	101	11.802	84.160
4	292	72.622	13.161	2.868	2.474	26	10.687	211	43.195	179.448
5	51	56.539	11.698	400	1.951	14	9.747	115	28.818	235.320
6	120	124.394	9.510	610	1.108	0	8.402	71	104.693	226
7	61	65.312	5.210	44	820	2	4.390	56	54.790	112.421
Guztira	1.818	394.928	65.812	4.523	10.199	65	55.613	854	257.862	1.184.582

2.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ITG Ganadero-ren bidez jakin izan du badela proiektu bat Les Garrigues eskualdean 150 mila tona purin birziklatzeko. Hurrengo azaroaren 24an, Huescan, hitzaldi bat izanen da horren berri emateko, eta Nafarroako teknikoak joatekoak dira.

3. eta 4.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak oso aurreratu du “Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan

Integrala”; plan horrek, besteak beste, nekazaritza eta abeltzaintzak sorturiko hondakinen arazoa aztertu eta jarduketa plana ezarriko du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 12an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Zerri-sektorearen krisialdiak Nafarroan duen eragina eta horri aurre egiteko balizko jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak zerri-sektorearen krisialdiak Nafarroan duen eragina eta horri aurre egiteko balizko jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 2ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak galdera egin du zerri-sektorearen krisialdiak duen eraginari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Zerri-azpisektorearen prezioen bilakaera ziklikoa da, nabarmenki. Zernahi dela, 1996an zehar eta 1997ko lehen seihilekoan prezioak ikaragarri igo dira, arrazoi koiuntural hauek direla medio: behien gaixotasun espongi-formea eta behi haragiaren kontsumoan duen eragina, eta Europako Batasuneko estatu batzuetan izan diren zerri-izurriaren gerraldiak.

Zirkunstantzia hauek ekoizpenaren gehitze nabarmena ekarri dute eta, horren ondorioz, aurtengo urtean zehar prezioak jaitea.

Zerri-azpisektoreko prezioen krisi honek izanen dituen eraginak ezin dira aurreikusi, horren bilakaera eta bukaera ez baitira finkoak (baldintza batzuen mendean daude).

Ekoizleen sektorea izan da eragina benetan jasan duena; dena dela, Nafarroan behar adina dago artikulatuta eta, beraz, krisiaren ondorioek ez diote indar handiagoz eraginen Europako Batasuneko beste eskualdeetan baino.

Ez da posible galeren kalkulu orokorra egitea; izan ere, horretan eragiten dute bai prezioen bilakaerak (eta prezioak egunero aldatzen dira) bai

ustiategi motek bai produkzio-kostuek (eta hauek ustiategien ezaugarrien arabera dira). Urte baten erreferentzia egiteak ere ez du balio, benetako balorazioa egitean ziklo osoan zehar ustiategietan izan diren eraginak aipatu behar baitira.

2. Merkatuaren Antolamendu Komun batek arautzen du zerri-haragiaren sektorea; MAK hori da Europako Batasuneko kide guztien jarduerareparua.

3. Joan den urriaren 26an izandako Batzar Sektorialean zerri-haragiaren krisiaz hitz egin zen.

4. Batzar Sektorialaren bilkura hartan jakinarazi zen Europako Batasunak debekatu zuela kide diren estatuak alde bakarreko neurriak hartzea. Europako Batasuneko Zerri Haragia Kudeatzeko Lantaldeak esportazioaren itzulketak gehitzea erabaki zuen, 30 ecu / 100 kg-tik 40ra; krisiaren ondorioak arintzen laguntzeko urrats bat da.

Orobat, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura idazkariordeak deituta, bilkura bat egin zen joan den azaroaren 11n. Autonomia erkidegoetako Nekazaritzako zuzendari nagusiak ere han ziren. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, zerri-sektoreko krisiaren ondorioak arintzearen, Europako Batasunean egindako kudeaketen berri eman zitzaizkien zuzendari nagusiei; Europan ezarritako arauak jarraiki egin litezkeen jardueren berri ere jaso zuten.

Nafarroako zerri-azpisektorearen etorkizuna eta aukerak Europako Batasuneko eskualde eta herrialde lehiakorrenen parekoak dira, bai bere egiturengatik bai profesionaltasunagatik bai kokapen geografikoagatik.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, autonomia erkidegoetako lan-taldeekin batera, Zerri-azpisektorea antolatzeke Errege Dekretu baten zirriborra idatzi du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 12an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

28470-3 lerroaren aurrekontu betetzeari buruzko galdera*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak 28470-3 lerroaren aurrekontu betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 10eko 86. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak galdera egin du aurrekontuko 28470-3 lerroaren betetzeari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1 eta 2. Hona elikagaien kalitatea kudeatu eta sustatzeko unitatearen aurrekontutik ordaindutako jarduerak:

a) Puntu kritikoak ezartzea (ARYCPC). Gaur arteko inbertsioa 279.626 pezetakoa da.

b) EN 45.011 arauak osatu eta ezartzea jatorrizko deituretan. 670.000 pezetako inbertsioa.

c) Nafarroako elikagaiak sustatzea. 3.085.600 pezetako inbertsioa.

d) Irrati kanpainak. 2.133.570 pezetako inbertsioa.

e) Publiurreportajeak. 481.400 pezetako inbertsioa.

f) Sustapen-ikustaldiak adituentzat. 1.382.777 pezeta.

g) Tuterako barazkiak goraiatzeko eguna. 2.000.000 pezetako inbertsioa.

h) Gazta lehiaketa Lizarran. 918.000 pezetako inbertsioa.

i) SER irrati-kateko programak, Iñaki Gabilondo, Juan Mari Arzak.

Buruz-buruko Espainiako txapelketa. 7.000.000 pezetako inbertsioa.

j) Sumiller-en Espainiako txapelketa. 1.293.103 pezetako inbertsioa.

k) I. kapituluko gastuak eta bidaiak. 11.200.000 pezeta.

Jarduera hauen osagarri dira gasturik gabeko beste batzuk: aholkuak ematea, informazioa, patzueragoa, etab.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 12an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

28550-5 lerroaren aurrekontu betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak 28550-5 lerroaren aurrekontu betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 10eko 86. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du 28470-3 lerroaren aurrekontu betetzea-

ri buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.a eta 2.a

Kontseilu arauemaileen eta Nasersaren lokal berrien proiektuaren kostua finantzatzea:	5.497.660 pezeta.
Proiektzio ekipoa erostea:	899.000 pezeta.
Bulegoko ekipoa:	1.475.450 pezeta.
Ekipo informatikoak:	677.890 pezeta.
Ibilgailu bat erostea:	1.450.000 pezeta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 12an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

55 urte baino gehiagoko Laguntza Espezializatuko medikuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak 55 urte baino gehiagoko Laguntza Espezializatuko medikuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikaren Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 55 urte baino gehiagoko Laguntza Espezializatuko medikuei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1.- Baldintza horiek betetzen dituzten Arreta Espezializatuko medikuei neurri hori edo antzeko beste bat aplikatzea pentsatu al du O-NOZek?

O-NOZek ez du pentsatu neurri hori berehala aplikatzea. Halere, egin beharreko azterlanak egiten ari dira, gizarte ordezkariekin 1999an egin behar den negoziazioan eztabaidatzea Foru Komunitatean 2000, 2001, 2002 eta 2003an aplikatu ahal izanen den.

2.- 55 urte baino gehiago izanik gaur egun NOZ-Oko zentroetan guardiak egiten dituzten eta horrelakorik egiteko prest leudekeen mediku espezialisten kopuruaren berri ba al dago?

Arestian esandakoari jarraituz, O-NOZek ez du horri buruzko informaziorik.

3.- Lehen azaldutako neurri edo akordioa abiarazteko burutu al du Departamentuak gaur egungo plantila organikoari buruzko azterlanen bat?

55 urte baino gehiago izanik gaur egun NOZ-Oko zentroetan guardiak egiten dituzten medikuak 38 dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Olagueko saihesbiderako obrak geratzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Olagueko saihesbiderako obrak geratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 2ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratien Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Olagueko saihesbiderako obrak geratzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer dela-eta gerarazi dira Olagueko saihesbiderako obrak?

Olagueko saihesbideko obrak ez dira gerarazi; mantsoago egiten ari dira. Lanak ez dira inoiz geratu.

Proiektuaren unitate jakin batzuk betetzeko modua interpretatzeko orduan, Administrazioak

eta eraikuntza-enpresak dituzten ikuspuntu ezberdinetan datza obrak mantsotzearen arrazoia.

2. Nafarroako Gobernuak onetsitako hasierako proiektua ukitzen duen aldaketarik ba al dago?

Olagueko saihesbidean egindakoek ez dute garrantzi handirik: egituretako batzuk (E-6, E-10 eta E-12) arin aldatu besterik ez da egin.

3. Obrak zenbat denbora geldirik egotea aurreikusten da?

Galdera honen erantzuna 1. atalean dago.

4. Zein da obrak bukatzeko ezarritako epea?

Olagueko saihesbideko obrak bukatzeko kontratuko epea 1999ko otsailaren 18an bukatzen da.

5. Obrak entregatzeko epeak Gobernuak aurreikusi bezala beteko al dira?

Gaur egun obrak nola dauden ikusita, ez dugu uste otsailean bukatuko direnik. Hurrengo maiztzean bukatuko direla aurreikusi dugu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Ekialdeko ingurubidearekin Burlata lotuko duen bide-zatiari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldek ekialdeko ingurubidearekin Burlata lotuko duen bide-zatiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 2ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 20an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Miguel Nuin Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ekialdeko ingurubidearekin Burlata lotuko duen bide-zatiari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Aretako poligonoa inguratuz Ekialdeko ingurubidearekin Burlata lotuko duen bide-zatiaren eraikuntza zergatik ari da jasaten hain atzerapen handia?

Behin obrak esleitu zirenean, interesgarri eta beharrezko jo genuen Arga ibaiko zubirako egin-

dako proiektuaren egitura mota aldatzea, hau da, argi batekoa egin partez hiru argikoa egitea.

Halako erabakia hartu genuen, zubiaren azpian etorkizunean oinezkoentzako bide bat jartzeko modua egon zedin, ikusirik udalak Arga ibaian ibai-parkea egitea sustatzen ari dela. Hala-korik ez zen estu-estuan beharrezkoa obra eraikitzeke, baina gure ustez interes publiko handikoa zuen ibai-parkearen etorkizuneko erabiltzaileen-tzat.

Egituren mota aldatze hori dela eta, beste baimen bat eskatu behar izan genion Ebroko Ur Konferderazioari. Beraz, obrak egiteko epea luzatu behar izan dugu, eskaera izapidatzeko eta haren gaineko erabakia hartzeko denbora behar delako.

2. Azpiegitura hori bukatzeko zer epe aurreikusten du uneotan Nafarroako Gobernuo Herri-lan Departamentuak?

Aurreikusitakoaren arabera, 1999ko otsailaren bukaera aldean bukatuko dira obra guztiak

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Ebro aldeko Erriberan TVE-Navarraren seinalea hartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Ebro aldeko Erriberan TVE-Navarraren seinalea hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 2ko 84. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 20an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratien Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ebro aldeko Erriberan TVE-Navarraren seinalea hartzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak egoera hori?

Nafarroako Gobernuak ezagutzen du Nafarroako Erriberako udal batzuetako zenbait alderditako etxebizitzetan, Yergako (Errioxa) berrigorlera orientatuta baitaude, izaten ari diren arazoak. Aspaldi dela, TVE-Navarraren lehenbiziko katerako seinalearen berrigorle bat jarri zen zentro

horretan, baina ezinezkoa izan zen beste berrigorle bat jartzea bigarren katerako, eremu hartako espektroa erabat beterik zegoelako.

2. Abian jarri al du Nafarroako Gobernuak neurriren bat hori saihesteko?

Garraio eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak RTVERi eskatu zion egoera aztertu eta “ondoko” beste kanal batetik berrigortzeko aukera azter zezan, TVE eta Retevisioren duten kontratuaren indarrez.

3. Noiz jarriko ditu Nafarroako Gobernuak behar diren bideak Erriberako herrietako biztanleek zailtasunik izan ez dezaten bigarren katean TVE-Navarraren seinalea hartzeko?

Retevisioren oraindik ez ditu bukatu egin beharreko azterlanak; beraz, ezin da epe zehatzik eman. Bitartean, Nafarroako Gobernuak zerbitzuak hasiak dira zelaiko neurri batzuk hartzen alderdi haietan, antenak Foru Komunitateko beste berrigorle batera orientatzeko aukera aztertzearen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 18an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

“Ogibiderik gabeko nafartarren egoera aztertzeko dirulaguntza” izeneko kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak “Ogibiderik gabeko nafartarren egoera aztertzeko dirulaguntza” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 24ko 91. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Eusko Alkartasuna” Parlamentuko Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “Ogibiderik gabeko nafartarren egoera aztertzeko dirulaguntza” izeneko kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1. Kontusail horren betetze-egoera, 1998an eta 1997an.

2. Gastatu baldin bada, azaldu zertan. Azterketa egin baldin bada, horri buruzko dokumentazioa.

3. Gastatu ez bada, eman bitez arrazoiak, eta baita kontusaila kentzeko edo gastatzeko aurreikuspenak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean, "Ogibiderik gabeko nafartarren egoera aztertzeko dirulaguntza" izeneko 1.000.000 pezetako kontusail dago.

1997an, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak ez zuen azterlanik batere egin ogibiderik gabeko atzerriko nafarrei buruz, eta oraingoz ez da horri buruzko azterlanik egin.

1997ko aurrekontuan ondoko kontusailera transferentzia egin zen diru horrekin: "Ogibiderik gabeko familientzako laguntzak" eta "Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak". 1998. urteari dagokionez, ez da gasturik batere egin kontusail horren kargura. Aurreko urtean bezala egitea aurreikusi da, hau da, 1.000.000 pezeta horiek "Ogibiderik gabeko familientzako laguntzak" izeneko kontusailera transferitzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 19an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Bidasoa ibaiaren inguruneke uren, jalkinen eta arrainen kalitatea hobetzeko aurreikusten diren jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Bidasoa ibaiaren inguruneke uren, jalkinen eta arrainen kalitatea hobetzeko aurreikusten diren jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Bidasoa ibaiaren inguruneke uren, jalkinen eta arrainen kalitatea hobetzeko aurreikusten diren jarduketei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Eginiko analisisien emaitzak ezagutu ahal izan direnean eta garrantzi handiagoko lagin-hartze biologiko baten emaitzen zain gaudenean, Katatzepegiko hondakindegian zer jarduketa burutzea aurreikusten da, ur-ekosistemak kalte handiagoak jasatea saihesteko? Jarduketa horietatik,

zeintzuk ukitzen dute hondakindegiko kudeaketa? Eta hondakin kopurua? Eta prebentzio-neurriak?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hala eskatu, eta Aceralia Transformadosek Lesakako udalari baimena eskatu dio Katatzepegiko hondakindegia hobetu eta egokitzeko lanak egiteko; aldi berean, departamentuan, hondakin arriskutsuen kudeatzaile izateko baimena eskatu du, eta beharrezko agiri teknikoak igorri ditu, zeinak aztertzen ari baikara.

Laburbilduz, Aceralia Transformadosek hurrengo neurri hauek egitea proposatu du:

– Aminea erreka bidea aldatu eta erreka hori kanalizatzea, hondakindegia hegoaldeetik.

– Iparreko isurialdeko ur emariak dren batez jasotzea.

– Hondakindegia perimetroa ixtea.

– Egun kudeatzen ari den eremua ixtea.

– Lixibiatuak jasotzeko depositua eraikitzea.

Isurtzen diren hondakinak erabat gutxitu dira azken urte hauetan, hobetu egin baitira produkzio-instalazioak, eta aldatu ere aldatu baitira prozesuen kudeaketa eta lantegiko hondakinen kudeaketa (1991n lantegiko hondakinak 8.455 tona egiten zuten; 1997an, berriz, 2.100 tona).

2.- Eskolamendiko meategietan eginiko isurketari, horien egitura hidrogeologikoari eta egitura-ahalmenari buruzko azken azterlan horretan iritsitako ondorioetatik abiatuz, zer jarduketa burutzea erabaki da? Eta isurketaren epe luzeko egonkortasun baldintzak ziurtatzeko?

Eskolamendi aldeko kutsadurari buruzko azterlan egin zuen enpresak hiru aukera proposatu zituen kokagune horren arriskua gutxitzeko. Enpresa horrek zioenez, aukera horietako bat hautatzeko, kontrolak egin, bilakaera aztertu, arrainen populazioan zer eragin duen ikertu –enpresa horrek lehenik eta behin azken horixe egitea gomendatzen zuen– eta emaitza horien arabera jokatu behar zen. Emaitza horiek ikusita, Aceraliari aukera horietakoren bat ezar dezan eskatu zaio, zor zaion entzunaldia eman ondoren.

3.- Zer zerikusi dago lantegiko produkzio-prozesuaren eta aztertutako ingurune jalkinetan detektaturiko metal mailaren artean? Komenigarritzat jo al da kutsatutako jalkinak kentzea?

Lantegia hirurogeiko hamarkadaren erdialdean hasi zen produzitzen eta 1978ra arte, urte horretan hondakin urak tratatzeko planta martxan jarri baitzen, Onin ibaira egiten zituen isurketak, isurkin horiek batere garbitu gabe.

Gaur egun, hondakin-urak garbituta botatzen ditu, baina ur horiek metal astunak dituzte; hala ere, indarrean dagoen legediak ezarritako mugen azpitik.

Antzemandako metal astunak aipatu diren bi jatorri horiek dituzte: 1978ra arte garbitu gabe isurritakoak eta, hein txikiagoan, geroztik garbituta isuri direnak.

Ez da aintzat hartu kutsatutako jalkinak kentzea, halako gehiegi ez baitago aisialdirako erabiltzen diren lekuetan, eta, beraz, gizakien osasuna ez baitago arriskuan.

4.- Nafarroako Gobernuaren ustez, aipaturiko jalkinak metal astunekin kutsatuta egotea inguruneko arrainengan kalteak eragiten ari al daiteke? Metalak faunan kontzentratzeak giza osasunari kalterik ekar al diezaioke?

Arrainen populazioaren kontrolari buruzko datuek diotenez, garapena normala da eta ez da antzeman aldaketarik Bidasoa ibaiaren arroko beste leku batzuekin alderatuta. Arrainen laginketa biologikoa egin, eta emaitzek ez dute emaitza argi eta garbirik ematen, laginketa hori mugatua baitzen eta neurketa bat besterik ez baitzen. Laginketa gehiago egin dira, eta horien emaitza eta ondorioak jasotzeko daude; beraz, behar izanez gero, neurriak har daitezke hurrengo arrantzaldirako. Osasun Publikoaren Institutuak eta udalek hornidura sistema behatzen dute eta, horretarako, urak duen metal astunen kontzentrazioaren kontrolak egiten dituzte.

5.- Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du xehetasun gehiagoko azterlan bat egitea, ur eta jalkinen kalitatearen eta arrainen ehunetan dagoen metal kontzentrazioaren mailaren artean egon litekeen korrelazioa modu fidagarriagoan ezarri ahal izateko? Noizko izanen ditu aipaturiko azterlan berriaren emaitzak?

Laginketa bat egin da jada, eta laboratoriorik berezituak analisiak egiten ari dira. Emaitza horiek aztertu ondoren, erabaki ahalko da azterlanekin jarraitu ala ez arlo horretan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 13an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Bidasoa ibaiko zenbait tokitan atzemandako kutsadurari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Bidasoa ibaiko zenbait tokitan atzemandako kutsadurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 27ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeari atxikitako Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Bidasoa ibaiak aurten izan duen kutsaduraren ondoren ibai horrek duen egoerari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuaren ekimenez egindako azterlanaren bitartez lorturiko datuak zeintzuk diren, oraingo honetan Transformados Lesaka lantegitik, Eskolamendiko meategietatik eta Katazpegiko hondakindegitik hurbil, Bidasoa ibaian, detektaturiko kutsadurari dagozkionak.

Egoera zertan den jakiteko hasierako azterlan bat egin ondoren, Bidasoa ibaiaren kutsadura aztertzeke kontrolak eta kutsadura horren bilakera aztertu da; hauetxeke dira ondorioak:

- Kutsaguneak izan daitezkeenek ez dute uraren kalitatean eragin jarraitik, eta zerikusia dute euri kopuruarekin. Gainera, urak badu nolabaiteko sakoneko kutsadura maila, eta hori, ziurrenik, garai bateko meatzeen ondorioz izanen da.

- Euri asko egiten duenean, hondakindegia eta meatzea jatorri duten zenbait partikulen emana gertatzen da.

- Partikula horiek gehienak ibaiaren hondoan jalkitzen dira, eta pilatu egiten dira eta metaleen kontzentrazio handiak sortzen. Kutsagune berri horietan gerta daiteke, egoera berezietan, partikula horiek uretan disolbatzea edo jalkin horiek elikatzeke erabiltzen dituzten espezieen bidez elikakatera pasatzea.

- Ibaian behera, jalkinetan, metaleen kontzentrazioa areagotu egin dela antzeman da; uretan behera egin, eta puntu horietatik metro gutxi

batzuk beherago mailak leheneratu egiten dira. Jalkin horien kontzentrazioak eragina izan dezake tokian tokiko faunan; hala erakusten dute atzemandako kontzentrazioen arteko konparaketek eta beste herrialde batzuetan eginiko ikerketek. Hala ere, halako gehiegi ez dagoenez aisialdirako erabiltzen diren lekuetan, eta, beraz, gizakien osasuna arriskuan ez dagoenez, ez da proposatu jalkin horiek kentzeko jarduketarik epe motzera.

- Jalkinetan metalak izateak badu zerikusirik aztertutako arrainen ehunetan metalak izatearekin; normalean, jalkinetan kontzentrazioa handia bada, ehunetan ere kontzentrazioa handia izaten da.

- Aztertu diren arrain espezieen alderdi fisiologikoak alde batera utzita, kobrea izan liteke arrain faunari arazoak sortarazten ari zaion metala; metal horren kontzentrazioak beste metaleen kontzentrazioak baino handiagoak dira. Azterlanak proposatzen du zehaztasun gehiagoz ikertu behar dela zerikusirik izan ote dezketen lantegiaren produkzio prozesuak eta jalkinek dituzten metal mailak.

2.- Zer neurri hartu duen Nafarroako Gobernuak horrekin zerikusia duten Departamentuen bitartez (Ingurugiro, Osasun, Toki Administrazio eta Industriakoa ere) maiatzean dirudienez Covitecma enpresak eginiko azterlanean detektaturiko ondorioak saihesteko.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak behin eta berriro eskatzen ari zaio Aceralia Transformadosi eta Lesakako Udalarari hondakindegia egokitu dadin aurkeztu zen proiektu teknikoaren arabera; horretarako, enpresak obra-baimena eskatu berri du udalean, eta proposatu ere proposatu ditu zenbait aldaketa, zeinak, momentu honetan, aztertzen ari baitira.

Garai batean Eskolamendiko meatzeetan eginiko isurketei dagokienez, Aceralia enpresari eskatu zaio neurriak har ditzala kokagunea lehenertzeko, eta zor zaion entzunaldia eman zaio.

Oraingoz, ez da beharrezkotzat jo neurri gehiago hartzea; hala ere, aldiro-aldiro kontrolak egiten eta egoera behatzen jarraituko da. Osasun Publikoaren Institutuak eta udalek hornidura sistema behatzen dute eta, horretarako, urak duen metal astunen kontzentrazioa kontrolatzen.

3.- Ea egia den ala ez ezen aipaturiko kutsadura-gunean atzemandako hainbat aletan, amuarrairain eta aingirak kasu, metal astunen indizeak giza kontsumorako legez ezarrita muga baino altuagoak zirela. Eta kasu zehatz honetan, hori egiaztatzen baldin bada, zer neurri hartu ziren, eta zer epetan?

Aztertutako eremuko hainbat puntutan harapatu ziren zenbait amuarrairain eta aingirak zituzten kobre eta merkurio mailak gizakiak jatekoak diren arrantza eta akuikultura produktuei buruzko legeak ezarritako mugak gainditu egiten zituzten.

Iruñean, 1998ko azaroaren 13an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza arloetarako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako inbertsioei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza arloetarako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako inbertsioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza arloetarako Estatuko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako inbertsioei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak egoki direla uste al du Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza arloetako inbertsio proiektuetan isladatutako zenbakiak gure komunitatean 1999rako aurreikusitako garapenari jarraibidea emateko?

1999rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen proiektuan ingurugiroari buruz agertzen diren zenbatekoak unean uneko jarduketari dagozkien, zeren, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren arabera, Nafarroak eskumen ia guztiak bereganatu baititu arlo horretan.

Ondokoak dira proiektu horretan azaltzen diren inbertsioak:

PROIEKTUA	PEZETAK
Donejakue Bidea programa	22.500.000
Ebro ibaiko ibilgua egokitzea	42.000.000

Erabiltzen ez diren azpiegiturak leheneratzea, josteta zein bestelako xedez erabiltzeko	112.416.000
Hiri-hondakinen kudeaketa	2.439.000

Lurraldearen antolamenduari eta etxebizitzari buruz, aipatu proiektuan 63.675.000 pezetako kontusaila dago, Defentsa Ministerioko etxebizitza sozial eta logistikoak zaindu, hobetu eta aldatzeko.

Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoarengatik, Nafarroa ez da sartzen etxebizitzaren gaineko jarduketari babesgarri buruzko Estatuaren planetan, eta, horrenbestez, Estatuko aurrekontuetako kontusailan ez dago horretarako dirurik.

2.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik bileraren bat egiteko Administrazio zentralerako ordezkariekin gure komunitateko inbertsioetarako lerroren bati esleitutakoa hobetzeko? Zein lerrori?

Estatuko Aurrekontu Orokorrek negoziatu eta onesterakoan, Nafarroaren interesak Madrilerako Kongresuko diputatu nafarrek defenditzen dituzte. Nafarroako Gobernuak informazio nahiko eman du horretarako 1999rako Estatuko Aurrekontu Orokorrek prestatzen hasi zirenetik.

3.- Nafarroan inbertitu beharreko horiek jaisten badira, ahalegin handiagoa egin beharko al da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagozkion zenbait lerrortan? Zein proiektutan? Zein izanen dira zenbatekoak?

Ez dago bestelako ahalegin ekonomikorik egiteko asmorik; izan ere, lehenengo erantzunean adierazi bezala, Nafarroak gai horiei buruzko eskumenak bereganatuak ditu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 6an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo

Zenbait obra burutzeko Estatuak 1999rako hitzartutako aurrekontuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak zenbait obra burutzeko Estatuak 1999rako hitzartutako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 26an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna

José Javier Sánchez Turrillas eta Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunek idatziz erantzuteko galdera egin dute Estatuko Aurrekontu Orokorretan Nafarroarako aurreikusitako inbertsioei buruz buruz. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak zenbatekoak gehitu dizkio idatzi honi, horiek argitu eta balioestea zuzenean inplikaturiko departamentuei dagokiela uste baitu.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1999rako Estatuko Aurrekontuetan hartutako konpromisoei buruz. Egindako sei galderetatik lehenengoak, bigarrenak eta seigarrenak departamentu honekin zerikusia izan dezaketelako, hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1.- Estatuak, 1999rako, zer aurrekontu hitzartu du Nafarroako espetze berrirako?

Lankidetzarako Hitzarmenaren aurreproiektua Parlamentuko Talde guztiei, baita CDNri berari ere, eman zitzairen bere garaian. Hasierako testua Espetxeen Zuzendaritza Nagusiarekin adostu zen, eta tramitatzeke dago Barne Ministerioan zein Administrazio Publikoen Ministerioan. Nafarroako espetxerako 5.000.000.000 pezetako gastua aurreikusi da; horietatik 3.000 administrazio

zentralak ordainduko lituzke, eta 2.000 Nafarroako Gobernuak. Nazioko Gobernuak emandako informazioaren arabera, aurrekontuetan badago diru bat espetxeetarako orokorrean, eta hitzarmena sinatzen denean zehaztuko da Nafarroako espetxerako zenbat behar den.

2.- Estatuak, 1999rako, zer aurrekontu hitzartu du Nafarroarako Entzutegi berrirako?

Ez dakigu zuk Entzutegi berria deitzen duzun horretarako dirurik dagonenentz, gobernu honek ez baitu horren gaineko ekimenik burutu.

6.- Estatuak, 1999rako, zer aurrekontu hitzartu du Defentsa Ministerioak Nafarroan inbertsioak egin ditzan?

Nafarroako Gobernuak ez du Defentsa Ministerioak Nafarroarako aurrekonturik hitzartzea eskatzen duen inolako planteamendurik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 5ean

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1999rako Estatuko Aurrekontuetan zenbait obratarako hartutako konpromisoei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Estatuak, 1999rako, zer aurrekontu hitzartu du Nafarroan obrak egiteko?

1999rako aurrekontuen proiektuak ondoko inbertsioak biltzen ditu ingurugiro alorrean:

PROIEKTUA	PEZETAK
Donejakue Bidea programa	22.500.000
Ebro ibaiko ibilgua egokitzea	42.000.000
Erabiltzen ez diren azpiegiturak leheneratzea, josteta zein bestelako xedez erabiltzeko	112.416.000
Hiri-hondakinen kudeaketa	2.439.000

Lurraldearen antolamenduari eta etxebizitzari buruz, aipatu proiektuan 63.675.000 pezetako kontusaila dago, Defentsa Ministerioako etxebizitza sozial eta logistikoak zaindu, hobetu eta aldatzeko.

Sustapen Ministerioak, berriz, 15.000.000 pezetako gastua egin asmo du 1999an Tuterako Gaztanbide antzokia zaharberritzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 6an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna

Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1999rako Estatuko Aurrekontuetan zenbait obratarako hartutako konpromisoei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

Ez dago horri buruz ezer esatekorik, kulturako ehuneko 1ari buruz erabakitzea Sustapen Ministerioari baitagokio.

Gobernua, dena den, toki entitate batzuetako arduradunekin batera, lanean ari da hainbait zenbateko hitzartzeko kulturako ehuneko 1 horren kargura.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Osasun Kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1998ko urriaren 6an, 1999rako Estatuko Aurrekontuetan zenbait obratarako hartutako konpromisoei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna: Estatuak ez du aurrekonturik hitzartu Nafarroan horretarako.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna

1998ko azaroaren 3ko galderari erantzunez, departamentu honetan 1999rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko dokumentazioa aztertu ondotik, ez dago kontusailik Nafarroarako gizarte aferen alorrean, ezta departamentu honen ardura den beste edozein arlotan ere.

Iruñean, 1998ko azaroaren 16an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1999rako Estatuko Aurrekontuetan hartutako konpromisoei buruz. Egindako sei galderetatik hiruk departamentu honekin zerikusia dutelako, hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

3.- Estatuak, 1999rako, zer aurrekontu hitzartu du Madril-Tutera autobiarako?

4.- Estatuak, 1999rako, zer aurrekontu hitzartu du Iruñea-Jaca autobiarako?

5.- Estatuak, 1999rako, zer aurrekontu hitzartu du Nafarroan herrilanak egiteko?

1999rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuan azaltzen dira hiru afera horiei buruz Estatuak, 1999rako, hitzarturikoa.

Honekin batera doa Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak emandako agiria, zeinetan zehazten baita, proiektutik beretik hartuta, zein diren 1999rako Estatuak aurreikusitako inbertsio errealak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 6an.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera

egin du 1999rako Estatuko Aurrekontuetan zenbait obratarako hartutako konpromisoei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1999rako Estatuko aurrekontuetan ez da jarduketarik aurreikusten Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak Nafarroan inbertsioak egin ditzan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 12an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1999rako Estatuko Aurrekontuetan zenbait obratarako hartutako konpromisoei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

Ondokoak dira Nafarroan, bereziki Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren alorrean, Estatuak aurreikusitako inbertsioak:

Industri alorrean, 600 bat milioi pezetako diru-laguntzak emanen zaizkio hainbat enpresari 1999an, ATYCA-Industri kalitatea, segurtasuna

eta teknologia laguntzeko ekimenaren barruan. Aurreko urteetako zenbatekoaren baliokidea da hori.

Turismo alorrean, Estatuko erakundeek zuzkituko bide dituzten hiru proiektu ditugu: batetik, Elgorriagako eta Beteluko bainuetxeak. Horiek eraikitzeko hitzarmena sinatuko da Sustapen Ministerioarekin eta udalekin, eta horren arabera, Sustapen Ministerioak % 50 ordainduko du, Nafarroako Gobernuak % 30 eta udalak % 20. Eta bestetik, "Donejakue bideko atea: azkartze plana", Turismoko Zuzendaritza Nagusiarekin sinatuko den hitzarmenari esker Turismoko Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Gobernuak eta Orreaga, Auritz eta Luzaideko Udalek finantzatuko dutena, denek ere diru kopuru bera jarrita.

Hiru proiektu horiek kapital-transferentzien bidez finantzatuko dira, toki entitateei bideratutako laguntzak baitira.

Lan alorrean, INEMek gutxitu egin ditu Nafarroan egin beharreko inbertsioak, zeren, bere bulego berriak 1998an erosi eta gero, Nafarroak eskumenak bereganatu dituenek, Nafarroan duen azpiegitura mantentzeko inbertsioak baino ez ditu egiten INEMek.

Iruñean, 1998ko azaroaren 19an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

(Oharra: Aipatu agiria Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

INEMek Osasunbideari ordezkapenak egiteko emandako zerrendari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak INEMek Osasunbideari ordezkapenak egiteko emandako zerrendari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 24ko 91. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Ezker Abertzalea” Parlamentuko Taldeko Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentario jaunak galdera egin du ordezkapenak egiteko zerrenda batzuei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zeinek eskatu zion zerrenda hori INEMi? Zein dira zerrenda horren helburu zehatzak? Eta INEMek egindako zerrenda hori bera, zeinek osatzen du –izen eta abizenak emanez– eta zein da beraien lerrokatzea?

a) Osasun Etxeen Zuzendariordetzako (Kanpoko kontsultetarako zentroko) Langileri Zerbitzuak bi zerrenda eskatu zizkion 1997ko maiatzean INEMi, udako oporraldia gerturatzen ari zenez, plantillako langileen ordezkapenak aurreikustearren.

- Bat OLTak ordezkatzeko.
- Beste bat zeladoreak ordezkatzeko.

Hori guztia Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuetarako sarrera eta lanpostuen hornidura arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuko 37. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

b) Zerrenda horien helburua zen, zehazki, pertsona batzuen izenak edukitzea Osasun Etxeen Zuzendariordetzako (Kanpoko kontsultetarako zentroko) plantillako langileen ordezkapenak egiteko kontratatzearen, behararen arabera.

c) Zerrenda horiek osatzen dituzten pertsonen izenak erantzun honi erantsi zaizkio.

Zerrenda horiek ez daude egun indarrean, jarraian azalduko den legez.

2.- Zergatik ez da jarraitzen INEMek emandako zerrenda behin-behineko anbulatorioetako langile-

en ordezkapenerako diren lan hitzarmenetan? Zergatik ez da betetzen Funtzio Publikoko Estatutuak dioena lan hitzarmen horietarako? Zein dira ordezkapen horietarako ezarririk dauden irizpideak, baldin balego bakarren bat, eta nork emandakoak?

a) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lanpostuetarako sarrera eta lanpostuen hornidura arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuko 37.a) artikulua honako hau dio: “Plantilako langile izateko frogak gauditurik ere lanposturik lortzen ez dutenek lehentasuna izanen dute denbora baterako kontrata daitezen”.

1998ko apiriletik bada zerrenda bat, lanpostu finkoetan sartzeko azken deialdian gauditurik eta plazarik gabe dauden zeladoreena. Zerrenda horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzu osorako balio du.

1998ko ekainetik bada zerrenda bat, lanpostu finkoetan sartzeko azken deialdian gauditurik eta plazarik gabe dauden OLTena. Zerrenda horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzu osorako balio du.

Bestalde, 1998ko uztailetik bada OLTen beste zerrenda bat, NAOen argitaratu deialdi baten emaitza. Sortzen diren beharren arabera aldi baterako kontratuak egitea zen deialdi haren helburua. Zerrenda horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzu osorako balio du.

Horregatik guztiagatik, INEMeko zerrendak ez dira erabiltzen, adierazitako arauak lehentasunezko eskubidea ezarri baitute.

b) Funtzio Publikoaren Estatutuak ezarritakoa betetzen da (347/1993 Foru Dekretua), eta, gainera, zehatz-mehatz.

c) Ordezkapenak direla eta, kontratazioak egiteko irizpideak 347/1993 Foru Dekretuan daude finkaturik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 24an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: Aipatu eranskina Foru Parlamentarioen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Pablo Sarasate Institutuko UBIko ikasleen eskola-garraioari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Pablo Sarasate Institutuko UBIko ikasleen eskola-garraioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 10eko 86. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abenduaren 2an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Pablo Sarasate Institutuko UBIko ikasleen eskola-garraioari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. Oinarrizko akats batetik abiatzen da galdera; izan ere, galdegileak ez baitaki ez dela antolatzen, ez diruz laguntzen, ezta bakarkako laguntza moduan ere, derrigorrezkoen ondoko irakaskuntzetarako garraioa. Nafarroako inongo barrutitan edo ikastetxetan, ez da antolatzen, ez dohainik ematen eta ez diruz laguntzen ere derrigorrezkoa-

ren ondoko irakaskuntzan ari direnentzako garraioa. Besterik da zenbait alderdi eta populaziotan ikasle horiek dohainik garraiatzea Departamentuak DBHko ikasleentzako antolatu eta finantzaturiko garraibideetan dauden leku hutsetan, betiere Hezkuntza eta Kultura Departamentuak gastua handitu gabe edo autobusen ibilbideak edo geltokiak aldatu gabe.

2. Departamentuak ez du inor bidali Parlamentura; bai esan du, ordea, derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzetako ikasleen garraioa finantzatzeko ez eskumenik, ez lege markorik, ez kontusailik ere ez duela.

3. Esandakotik ondoriozta daitekeenez, ez dugu ezberdintasunik egin ikasleen artean. Departamentuak ez du tresna juridiko edo aurrekontuzkorik Pablo Sarasate BHIko Apymari arretea egiteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 26an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Iratxeko museo etnologikoan fonoteka ez jartzeko arrazoiei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak Iratxeko museo etnologikoan fonoteka ez jartzeko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 20ko 89. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abenduaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Iratxeko museo etnologikoan fonoteka ez jartzeko arrazoiei buruz.

Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

Ez dago instalazio hori ez jartzeko arrazoirik; alderantziz, museo etnologiko batek ogibideen edo abesti, ipuin, istorio eta hitzezko bestelako edozein adierazpenen ahozko lekukotasunak bilduko dituen fonoteka edo atal bat eduki behar du. Beharrezkoa da hori edozein museo etnologikotan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abenduaren 11n

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Eskualde mistoko errepideetako panelei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak Eskualde mistoko errepideetako panelei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 20ko 89. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abenduaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Ezker Abertzalea” Parlamentuko Taldeko Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Eskualde mistoko errepideetako panelei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zergatik eskualde mistoko errepideetako panel berriek ez dute araudia betetzen; hau da, zergatik ez daramate euskarazko testurik?

Azken hilabete hauetan, ez da panelik jarri eskualde mistoko herriak seinalatzeko. Bi eratako kartelak jarri dira:

a) Egiten ari diren obrak seinalatzeko. Ekainaren 13ko 157/1986 Foru Dekretuan arautu ziren haien tamainak eta testuak.

b) Nafarroako Errepideen Sarearen informazio seinaleak. Eskualde euskaldunean eta mistoan seinale elebidunak erabili ditugu.

Etorkizunean, eskualde mistoan gaurko kartelen orde berriak jartzen direnean, elebidunak jarriko dira, hala ezartzen baitu 1995eko abenduaren 18ko Nafarroako Gobernuaren Erabakiak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abenduaren 10ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Biosegurtasunaren gaineko Foru Batzordeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Biosegurtasunaren gaineko Foru Batzordeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 24ko 91. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abenduaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Biosegurtasunaren gaineko Foru Batzordeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak izendatu al ditu aipatu Batzordearen kideak; alegia, 204/1998 Foru Dekretuak aipatzen dituen departamentuen ordezkariak? Nortzuk osatzen dute Biosegurtasunerako Foru Batzordea?

Bai. Ondokoak dira izendatutako ordezkariak: Ángel Sola Jiménez jauna (Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko ordezkaria), Joaquín Sanz de Galdeano Equiza jauna (Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko ordezkaria), Teresa Ferrer Gimeno andrea (Osasun Departamentuko behin-behineko ordezkaria), Maravillas Alemán diez de Ulzurrun andrea (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko ordezkaria), eta José Ignacio Elorrieta Pérez de Diego eta José Torres Ruiz jaunak (Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko ordezkariak).

2. Aipatu Dekretuak bere 3. artikuluan aipatzen dituen txostenetatik zenbat eman ditu Batzorde horrek? Zer gai aipatzen ditu horietako bakoitzak? Zenbat txosten bidali dizkio Biosegurtasunerako

Estatu Batzordeari? Alderantziz, zenbat txosten hartu ditu Estatu Batzordetik? Zer gai aztertu ditu horietako bakoitzak? Emandako eta hartutako txostenetan agertu den iritzia nolakoa izan da, planteatu diren gaien aldekoa ala kontrakoa?

Bost txosten egin dira orain arte: SENASaren lore arrak antzuak dituzten artoekin entseiuak, Agrevoren zedenekiko erresistenteak diren artoekin entseiuak, Monsantoen zedenekiko erresistenteak diren artoekin entseiuak, Pioneerren zedenekiko erresistenteak diren arto hibridoekin entseiuak, Monsantoen Roundup-ekiko erresistenteak diren artoekin entseiuak.

Biosegurtasunerako Foru Batzordeak ez dio gaur arte txostenik igorri Batzorde Nazionalari; jaso, 5 jaso ditu harengandik. Txosten guztiak entseietako balizko arriskuak ebaluatzeari buruzkoak izan dira, eta aipatu 5 kasuetan baieztatuak izan dira txostenak.

3. Batzorde honek, edo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, zenbat baimen eman ditu, zer produktutarako eta zer helburutarako?

Bost baimen eman dira artoarekin bost entseiu egiteko, lore arrak antzuak dituzten landareen ezaugarriak eta zedenekiko edo herbizidekiko erresistentziak egiaztatzeko.

4. Azken baimen horiek direla eta, halakorik eman bada behintzat, baldintzarik jarri al da erabilerarako? Zeintzuk dira baldintzok, horietako bakoitzean?

Baldintzak honako gai hauen ingurukoak izan dira: entseiuak aislatzeko seguritatea, eta uztandoa kontrolatzeko eta sor litezkeen hondakinak behar bezala deuseztatzeko neurri batzuk.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998 abenduaren 15ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Osasun Departamentuko zenbait aurrekontu kontusailen betetze mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Osasun Departamentuko zenbait aurrekontu kontusailen betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko abenduaren 1eko 92. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abenduaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Eusko Alkartasuna” Parlamentuko Taldeko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak galdera egin du, Osasun Departamentuko kontusail batzuen zenbait alderdiri buruz. Kontusail horien helburua langileen eskaerak direla-eta ordezkioak kontratatzea da. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Anbulatorioen laguntza koordinatzeko zuzendariorde eta.

1.869.787 pezeta exekutatu dira; gainera, Gizarte Segurantzako kuota patronalaren gastua izan behar da kontuan; hots, 592.540 pezeta.

19 lagunek eskatu dute euskaraz ikastea. 8k ikastaro arruntetan eta 11k ikastaro trinkotan (fisioterapeuta 1, administrari 1, OLT 1, ETE 3 eta 5 zeladore).

Ikastaro trinkoetako guztiak ordezkatu dira. Administrazio araubideko kontratuak egin dira, ikastaroan den titularra ordezkatzekoak.

Ez da beharrezkoa izan deialdia egitea edo ordezkatu beharreko langileak hautatzeko baldintzak ezartzea, aurrekontuan nahiakoa diru baitago horretarako.

Euskalduntze prozesuan sartzeko 19 pertsonak eskatu dute, eta horietatik 11 izan dira ordezkatuak. Eskabide guztiak onartu dira.

Nafarroako Ospitalea:

28 lagunek eskatu dute euskaraz ikastea. Hona horien titulazioak: 2 mediku, 14 OLT, 4 administrari, 4 erizaintzako laguntzaile, zerbitzari 1, zeladore 1, zainketa eta garbiketa arduradun 1 eta zerbitzu orokorretako enplegatu 1.

15 pertsona izan dira ordezkatuak, euskaraz ikasteagatik ordezkatzeko kontratuaren bidez.

Euskalduntzeko 28 eskabide egin dituzte, eta pertsona bakar bati ukatu zaio aukera.

Bideko Ama Birjina Ospitalea:

Euskalduntzea dela-eta, ordezkapenak egiteko 5.105.000 pezeta daude aurrekontuan. Azaroan gaude eta gaurdaino 4.594.200 pezeta gastatu dira. Abenduan 510.000 pezeta gastatuko dira, hilabete horretarako baimenduta dauden bi ikastaro direla eta.

Ordezkapenak ez dira egiten interesatuek eskaturik, zerbitzuko beharren arabera baizik. Ordezkapen-kontratu administratiboaren bidez egin dira kontratazioak.

Ordezkatuak diren langileak izendatzeko sistema gainerako kontratazioetan erabilitako bera da.

60 eskabide izan dira; horietatik 33ri ukatu zaio aukera, aurrekontuaren mugengatik; 23 izan dira ordezkatuak.

Hona eskatzaileen kategoriak: 2 mediku, emagin bat, 14 OLT, 14 erizaintzako laguntzaile, 18 zeladore, 2 administrari, 6 administrari laguntzaile eta 2 sukalde-mutil.

Ubarmin Klinika:

919.000 pezetakoa da aurrekontuko kontusaila.

Irakastaroetara joandako guztiak ordezkatu dira.

4 pertsona ordezkatu dira (2 fisioterapeuta eta 2 OLT). Azaroaren 30a bitartean, 607.412 pezetako gastua izan da; abenduarekin aurrekontua gaindituko da.

Tuterako Osasun Barrutia:

Aurrekontuko zenbatekoa 1.940.000 pezetakoa da. Urriaren 31 bitarte, 1.540.891 pezetako exekutatu dira. Dena dela, kontusailaren ixtea 1.986.213 pezetakoa izanen dela aurreikusi da.

9 eskabide jaso dira: 6 OLT, 2 erizaintzako laguntzaile eta zeladore bat.

9 ordezkapen horiek egiteko beste hainbeste pertsona kontratatu dira. Bitarteko kontratu administratiboaren bidez betetzen dira lanpostu horiek, indarrean dagoen legediari jarraiki.

Euskalduntzea dela-eta, pertsonala ordezkatzeko sistema beste edozein egoeratakoa bera da, azaroaren 22ko 347/93 Foru Dekretuan zehazten den legez.

Euskalduntzeko 15 baimen jaso dira, eta horietatik 9 onartu eta ordezkatu dira. Gainerako eskabideak ez dira onetsi, aurrekontuan krediturik ez dagoelako.

Lizarrako Osasun Barrutia:

Aurrekontuko zenbatekoa: 1.252.000 pezeta; guztia exekutatu da.

Ordezkapena eskatu duten pertsonak 9 dira: mediku bat, 5 OLT, ETE bat eta 2 erizaintzako laguntzaile.

Euskara ikasteko ausentziengatik kontratu administratiboan bidez bete dira ordezkaturako 8 pertsonen lanpostuak.

Euskalduntze prozesuan sartzea 13k eskatu dute, eta, horietatik, 8 ordezkatzeko izan da beharrezko. Eskabideetako bat ez zen onartu aurrekonturik ez zegoelako.

Oinarrizko Osasun Laguntza eta Adimen Osasuneko Zuzendaritza:

Aurrekontu bateratua: 1998ko urria bitarte, 5.105.000 pezeta exekutatu dira, eta azaroan eta abenduan 4.478.731 pezeta exekutaturako direla aurreikusi da.

90k eskatu dituzte ikastaroak; hona horien kategoriak: 30 mediku, 31 OLT, 2 fisioterapeuta, 8 gizarte langile, ingeniari tekniko bat, 11 administrari laguntzaile, 5 erizaintzako laguntzaile eta 2 zeladore.

Euskalduntze ikastaroetara doan pertsonalaren ordezkapenak direla eta, azaroaren 22ko 347/93 Foru Dekretuko 37. artikuluan ezarritako hautapen sistemak baliatu dira pertsonala kontratatzeko. Pertsonala ordezkatzeko kontratu administratiboak formalizatu dira.

Ordezkaturako ikastaroak 31 izan dira eta ukaturakoak 13. Aurrekonturik eza izan da ukatzeko arrazoia.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abenduaren 2an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Pertsona seropositiboan edo GIB-Hiesarekin bizi direnen erregistro nominalik egin ote den itauntzen duen galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak pertsona seropositiboan edo GIB-Hiesarekin bizi direnen erregistro nominalik egin ote den itauntzen duen galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 20ko 89. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abenduaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko

galdera egin du pertsona seropositiboan edo GIB-hiesarekin bizi direnen erregistro nominalik egin ote den jakiteko. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1. Egin al da Nafarroan, pertsona seropositiboan edo GIB-hiesarekin bizi direnen izenen erregistrorik?

Nafarroan badago seropositiboan izenen erregistro bat, zainketa epidemiologikoa behar duen beste edozein gaixotasuna dutenen erregistroak dauden bezalaxe. Hona erregistroaren helburua:

- Diagnostikaturiko GIB infekzioaren eragina.
- Haren banaketa deskribatzea, aldagai epidemiologiko nagusien arabera (adina, sexua, leku eta denbora ezaugarriak eta abar).

- Infekzioa-hiesa-heriotza sekuentzia ren bila-kaera aztertzea, behar diren prebentzio- eta laguntza-neurriak balioesteko.

Teknikoki, horrelako ezaugarriak dituen erregistro batek banakako informazio aski eduki behar du datu bikoiztuak ez edukitzeko (kasu bera behin baino gehiago erregistratzea) eta infekzioa-hiesa-heriotza sekuentzia aztertu ahal izateko.

Informazio izendunaz bestelako alternatibek banakako informazio gehiago izatea eskatzen dute (izen-deituren lehen letrez gainera, gaixoa jaio zen urtea, non jaio zen edo non bizi den, NANA edo/eta Norbanakoaren Osasun Txartela), identifikatzeko moduko erregistro bat egin ahal izateko. Gainera, datu horiek eskuragarri ez denez informazio iturrietan (osasun laboratorioak), beharrezkoa da banakako beste erregistro batzuetara jotzea.

Hiesari buruzko Nafarroako informazio sistema 1991n sortu zen, eta infekzioari buruzko 1985etik aurrerako datuak ditu. Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuko Izurriteak Galarazi eta Kontrolatzeko Atalean sartuta dago, eta zaintza epidemiologikoa egin beharreko beste edozein gaixotasunaren kasuan erabiltzen den tratamenduaren berdina izan du. Hona haren legezko babesa:

1) Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Legeko 8, 23 eta 61. artikulua.

2) Datu pertsonalen tratamendu informatizatua arautzen duen urriaren 29ko 4/1992 Lege Organikoaren 8 eta 11. artikulua.

3) Osasunari buruzko azaroaren 23ko 1990 Foru Legearen 13.6 artikulua.

4) Nafarroako zaintza sistema ezarri eta hura arautzen duen abenduaren 22ko 233/1998 Foru Dekretuko 25. artikulua.

Nafarroako GIB erregistroak gainera, Nafarroako Parlamentuak 1995ean Hiesa eta GIBarekin batera izaten diren infekzioak aurreraindu eta kontrolatzeko programa aho batez onetsi izanak ematen dion babesa du. Programa hori Hiesari buruzko Batzorde Aholku-emaile Teknikoak egin zuen, eta batzorde horretan GKEak ordezkatuta zeuden.

Programa horretan, Informazio Sistemen Atalean, honako helburu zehatza agertzen da: "Infekzioaren eta gaixotasuna zaintza mantentzea, eta datuak bildu eta sailkatzeko arauak arazoan gertatzen diren aurrerakuntzen arabera egokitzea". Helburu hori sendagile epidemiologikoei eskatzen zaizkien konfidentziasun eta isilpekotasun arau

estuenak betez erdietsi da; horiexek izan dira erregistroko informazioa erabili ahal izan duten bakarrak.

Bide berean, Nafarroako Parlamentuak berriz eman du iritzia; hain zuzen ere, 1999-2000 Nafarroako Estatistika Planari buruzko azaroaren 19ko 15/1998 Foru Legea onetsi baitu, eta lege horren eranskinean, garatu beharreko helburuen artean, "GIB infekzioko kasuen erregistroa".

2. Erregistro hori edo beste edozein, edo pertsona seropositibo edo GIB-hiesak kaltetutako datu pertsonalen datu-tratamendu automatizaturik egin bada, kaltetutako ezaguera eta baimenarekin egin al da?

1.- Informazioa Osasun erakunde eta zentroetako sendagileek biltzen dute, Datu pertsonalen tratamendu informatizatua arautzen duen urriaren 29ko 4/1992 Lege Organikoaren 8. artikulua babesean: "osasun erakunde eta zentro publiko eta pribatuek eta kasuan kasuko langileek sendabide bila haietara jotzen duten pertsonen osasunari buruzko datu pertsonalen tratamendu automatizatua egin ahal izanen dute".

2.- Datuak sendagile epidemiologoei erregistroa egin dezaten uztea, berriz, lege beraren 11.2.f) artikulua babesean egiten da: "Eskatzen den baimena ez da beharrezkoa izanen osasunari buruzko datu pertsonalak uztea beharrezkoa bada fitxategi automatizatu bat kontsultatu behar den larrialdi batean edo azterlan epidemiologikoak egiteko".

3. Pertsona seropositiboaren eta hiesa dutenen datu pertsonalen erregistrorik egin bada, zein prozedura erabili da datuen eta osasun kontrolak egiten dituzten pertsonen nortasunaren isilpekotasuna bermatzeko?

Hona hartzen pertsonen datu eta nortasunaren konfidentziasuna bermatzeko erabiltzen diren prozedurak:

1) Informazio pertsonala Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sendagileen eta Osasun Publikoaren Institutuko sendagileen artean transmititzen da, eta konfidentziasun eta isilpekotasun profesionalaren arau estuenak ere betetzen ditu.

2) Datuak biltzerakoan, bi artxibo erabiltzen dira:

a) Izenik gabeko datuen artxiboa. Erregistroa esan izan zaio. Ondoko aldagaiak ditu:

- Identifikazio kodea (zenbakiduna).
- Deituren hasierako letrak.

– Jaioteguna.
 – Bizi den udala eta probintzia.
 – GIB positiboaren lehen diagnostikoaren eguna.

– Transmisio mota.
 – Hiesa noiz garatu den.
 – Heriotzaren data eta zergatia.

b) Datu izendunen artxiboa:

– Identifikazio kodea (zenbakien bidezkoa).
 – Izen-deiturak.
 – Jaioteguna.

3) Bi artxibo hauek ordenadore banatan daude, eta eraikineko solairu ezberdinetan kokatuta. Artxibo horietara erregistroko arduraduna baino ezin da sartu. Horretarako, klabe batzuk erabili behar ditu ordenadorean sartzeko eta beste batzuk artxiboetara sartzeko.

4) Ez da sekulan daturik eman pertsonak zuzenean ala zeharka identifikatzeko bidea eman zezaketenik.

5) Datuen erabilera bakarria zaintza epidemiologikoa egitekoa da. Aldizka txosten batzuk egiten dira gaixotasunaren eraginak dauzkan joerei buruz, adina, sexua eta transmisio erari dagokienez, bai eta hiesa garatu duten gaixoen ehunekoari eta gertaturiko heriotzei buruz ere.

6) Banakako informazioa ez da inoiz erabili bestelako helburuetarako: ez tratamenduen indikazio gisa, ez gaixoen kontaktuak kontrolatzeko eta ez besterik ere.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abenduaren 10ean

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Kirurgia-ebakuntza egiteko itxaron-zerrendan dauden gaixoen kopuruari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak kirurgia-ebakuntza egiteko itxaron-zerrendan dauden gaixoen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko abenduaren 1eko 92. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abenduaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Pedro Antuñano Zárraga Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Kirurgia-ebakuntza egiteko itxaron-zerrendan dauden gaixoen kopuruari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zenbat eri dago, gaur egun, 180 egun baino gehiagoko itxaron aldiarekin?

2.- Zer espezialitate edo kirurgia-zerbitzuk, eta zer ospitalek dute atzerapen hori itxaron-zerrendetan? Aldi berean, zenbat eri dago horietako bakoitzean?

EBAKUNTZETARAKO ITXARON-ZERRENDA, 98-11-16AN.
 180 EGUN BAINO GEHIAGOKO ITXARON ALDIA.

ZERBITZUA	NAF. OS.	BID. A. OS.	TU. OS.	GUZT.
ZIRUG. OROKORRA		3		3
TRAUMATOLOGIA	6		2	8
OFTALMOLOGIA		3	1	4
O.R.L.		9	2	11
AURPEGI-MASAILE-TAKO ZIRUGIA		7		7
ZIRUGIA PLASTIKOA		9		9
GUZTIRA	6	31	5	42

Aurreko 42 gaixo horietatik, 31k programazio-data ezarrita dute, eta 98ko azaroan egin zaie ebakuntza:

EBAKUNTZA EGITEKO PROGRAMAZIO-DATA DUTEN GAI-XOAK, 1998KO AZAROAN

ZERBITZUA	NAF. OS.	BID. A. OS.	TU. OS.	GUZT.
ZIRUG. OROKORRA		3		3
TRAUMATOLOGIA	3			3
OFTALMOLOGIA		3	1	4
O.R.L.		6	2	8
AURPEGI-MASAILE-TAKO ZIRUGIA		5		5
ZIRUGIA PLASTIKOA		8		8
GUZTIRA	3	25	3	31

3.- Neurri berezirik hartu al da giza- eta gauza-baliabideen aldetik, aipatu itxaron-zerrendak dituzten espezialitateetan? Hala bada, zeintzuk dira?

Ez da "neurri berezirik" hartu; izan ere, kopuru horiek ez dute justifikatzen aparteko neurriak hartzea, kasu bakoitzaren jarraipen zehatz eta banakatuaz haratago. Oro har, Nafarroako Osasunaren Informazio Sistemaren zirugiako itxaron aldie buruzko kopuru txiki horiek zenbait egitura-neurriei zor zaie eta ez abaguneko neurriei. Egitura-neurri horiek ebakuntzetarako itxaron zerrendak etengabe txikiagotzea bideratzen ari dira, nahiz eta aldi berean kontsultetako jarduera igotzen ari den. Neurri horiek, beste batzuen artean, osasun zentroetako kudeaketa kontratuak garatu eta ebaluatzean datza. Horrek berekin ekarriko du ospitaleek konpromiso zehatza hartzea itxaron aldiak murrizteko, deribazio eta informazio tresnen hobetuz –bulego-lanak sortarazten zituen atzerapenak murriztearen ondorioz–. Halaber, Osasun Departamentuak beharrezko jo du herritarrarentzat gehienez ere 180 eguneko atzerapena egonen dela esplizituki bermatzea, osasun zentroekin egindako kudeaketa-kontratuak indartu eta sustatzeko modu gisa; izan ere, itxaron aldi hori baino txikiagoak hitzartzen dira.

4.- Zer ondorio izanen dituzte ospitaleetan itxaron-zerrendetatik eratorritako gastuek? Izan ere, badirudi ospitale bakoitzarendako pizgarrietatik aterako direla.

Gaixo horiei arreta egiteak sorturiko gastuek, uste denez, zentro horietako gainerako jarduerak sortarazten dituzten eragin bera izanen dute laguntza zentroetan.

Aipatu kudeaketa kontratuak halako murrizketa bat ezartzen dute zentroari aplikatu beharreko pizgarrietan, jarduera hitzartua zuen zentroak kanpora deribatu behar izan badu ebakuntza. Halaber, zentroko pizgarriek aurrekontuaren betetzea eta kalitate plana ere aintzat hartu beharko dituzte.

5.- Pentsatu al dute Foru Agindua nola aplikatu eta haren benetako jarraipena nola egin ospitale bakoitzean?

Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzak zentro zentroko eta gaixoen araberako jarraipen sistema banakatua ezarri du, Foru Agindua behar den bezala bete dadin. Gogoratu beharrezkoa da Foru Aginduak gaixoarentzako berme jakin bat ezezik, kasu bakoitzean aplikatu beharreko prozesua bermatzeko mekanismoa ere ezartzen duela, gaixoak beti tratamenduaren programazioaren egoeraren berri izan dezan.

6.- Plantilla gehitzea aurreikusi al da?

Ez, ez dugu uste beharrezkoa denik. Adierazi dugun bezala, itxaron zerrenda murrizteko xedea –ospitaleetako kudeaketa kontratuetan zehaztuta dagoena– eta berme esplizituak jartzea erabat onartuta daude Nafarroako ospitale publikoen kudeaketa-helburu gisa. Hori dela eta, langile gehiago hartu gabe egin daitekeela uste dugu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko azaroaren 26an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Iruñeko espetxeko sukaldeko profesionali buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Iruñeko espetxeko sukaldeko profesionali buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko abenduaren 1eko 92. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abenduaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak galdera egin du Iruñeko espetxeko sukaldean diharduten langileen arazoari buruz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz, hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak erantzun duena:

1) Iruñeko espetxeak egunero 120 menu eta 50 errazio ezberdin zerbitzatzen ditu, elikadura berezia behar duten preso askoren osasun-baldintzei behar bezala erantzuteko. Hori kontuan izanik, lau profesional nahikoa al da egunero bi txandari eta, gainera, libratze eta astebukaerei aurre egiteko?

Eguneroko txanda, libratze eta asteburuei aurre egiteko, nahikoa dira 3 profesional. Dena

dela, zentro honek duen garrantzia kontuan izanik, beste profesional bat sartu da plantillan.

2) Populazio txikia izanik, zaila gertatzen da sukaldean lan egiteko gaitasuna eta elikagaien higiena eta kontserbazioa zaintzeaz arduratzeko behar hainbateko esperientzia daukaten presoak aurkitzea. Espetxeko zuzendaritzak sukaldean laguntzeko profesional gehiago eskatu al du?

Espetxeko zuzendaritzak profesional gehiago eskatu ditu sukalderako, eta, beste zirkunstantzia batzuk kontuan izanik, plantillan beste sukaldari bat sartzeari buruz hausnartu da.

3) Profesional-kopururik egokiena hamar litzateke, Iruñeko espetxearen barne-funtzionamendua ezagutzen dutenen arabera: lau, goizetarako; hiru, arratsaldeetarako; eta hiru, libratzeak betetzeko. Sukaldeaz arduratzeko profesional-kopururik egokiena zein litzatekeen aztertu al du Gizarte Ongizateak?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak aztertu du gaia, eta, antzeko ezaugarriak dituzten beste zentro batzuekin alderatuz, Iruñeko zentroak behar beste profesional ditu.

Hori guztia jakinarazi dizut, behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 1998ko abenduaren 11

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Servirecord enpresarekin hitzartutako zentroyen instalazioetan eta altzarie- tan atzemandako akatsei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Servirecord enpresarekin hitzartutako zentroyen instalazioetan eta altzarietan atzemandako akatsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko abenduaren 1eko 92. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abenduaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Servirecord enpresarekin hitzartutako zentroyen instalazioetan eta altzarietan atzemandako akatsei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer bide ezarri du Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak ekimen pribatuko zentro itunduekin –Servirecord enpresarekin, oraingoan– instalazio eta altzarien arazoak konpontzeko?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko hitzarmenetako klausula administratiboan pleguetan ondokoa ezartzen da: adjudikazio hartzailea derrigortuta dago Administrazioak hitzarmen honen xede den zerbitzua kudeatzearen emandako higiezinak, instalazioak eta gainerako bitartekoak behar bezala mantentzera. Egoki erabili ahal izateko moduan emanen ditu instalazioak Administrazioak. Hitzarmenak indarrean dirauen bitartean egin behar diren inbertsioak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ordainduko ditu, salbu eta berritze-gastuak, horiek enpresak ordainduko baititu. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak inbertsioak egiaztatuko ditu, ikuskatu eta balioesteko dituen bitartekoak baliatuta.

2. Egia al da 95, 96 eta 97 urteetako txostentan zentro horretako altzari eta instalazioetako arazoak azaldu zirela?

Txostenek, besteak beste, altzari eta instalazioen egoera azaltzen dute, eta, beraz, logikoa da arazo horiek ere bertan azaltzea.

3. Noiz jakinarazi edo azaldu zituen Servirecord enpresak, halakorik egin badu, urteko txostentan azaldutako arazo horiek?

Ez Servirecord, SAK ez sektorean lan egiten duten gainerako entitateek ez dute epe jakin bat ezarrita Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari jakinarazpenak egiteko, komunikazioa etengabea baita, eta horri esker, Departamentuak uneoro daki zeintzuk diren ekipamendu zein higiezinetakoa arazoak. Gainera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko teknikariak behar adina aldiz joaten dira zentroetara, horien egoera bertatik bertara ezagutzeko.

Sortu ahala konpondu nahi izaten dira arazoak, baina batzutan zaila izaten da. Une honetan, Venceroleko pisuan auzi bat dago auzo-komunitatearekin, ez duelako sukaldia erabiltzen uzten nahiz eta oso-osorik jarrita egon, eta horrek arazoak sortzen ditu zentroyen eguneroko bizitzan.

Egia da higiezinako tutuek, zaharrak direlako, arazoak sortzen dituztela. Horregatik, tutuak aldatzeko aurrekontua eskatu da.

Altzariei dagokienez, une honetan somier eta koltxoi berruak ari dira paratzen.

4. Kudeaketa lana irabazteko asmoa duen enpresa baten eskuetan dagoenean, nola kontrolatzen ditu Nafarroako Gobernuak giza baliabide edo baliabide material aski daudela zentroan edo han bizi direnentzako garbiketara gai aski izatea bezalako alderdi zehatzak?

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak egiten duen jarraipenaren zein kontrolaren bidez, zentro berekietan zein hitzartuetan bertan egiaztatzen du erabilitako giza baliabideak eta baliabide materialak egokiak direla.

Han bizi direnentzako garbiketara gai aski ote dagoen galdetzen duzu. Bada, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarekin bat etorritz, enpresak darabilen irizpidea da garbiketara gai aski banatzea. Erabiltzaileek aukeratzen dituzten garbiketara gaiak (perfume-marka jakinak, bainu-jeleak eta abar), ordea, beraiek erosi behar dituzte.

Diru gutxi irabazten baldin badute, zentroak erosten ditu.

5. Egoitzan bizi direnek zazpi mila pezetatik 60 mila pezetara bitartean irabazten dute lan zentro-

etan eta enplegurako zentro berezietan, zein da itundutako plazen kostua eta zer eragin du hilabetero pertsona horientzat diruaren aldetik?

Lehenengo eta behin, argitu egin behar da gauza bat dela zenbat irabazten duten ezintasunen bat dutenek lan zentroetan eta enplegurako zentro berezietan, eta beste bat benetan zenbat irabazten duten, ze egoitzan bizi diren gehienek horretaz gain pentsio bat edo gehiago ere kobratzen dute.

Egoitzan bizi direnek, gaur egun, 174.830 pezeta eta 25.430 pezeta bitarte irabazten dute hilero. Lehenengoek 50.000 pezeta ordaintzen dute hilero, eta bigarren kasuan dagoen bakarrak, aldiz, 2.460 pezeta.

Gainera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren gobernu batzordeak onetsitako tarifei buruzko azken araudiak hauxe dio: hileko per capita errentaren % 50eko portzentajea aplikatzen den zenbatekoa ordainduko dute zerbitzu hau erabiltzen dutenek hileko ordainketa partzial gisa, baldin eta tarifa oso-osorik ordaintzeko diru nahiko irabazten ez dutela kreditatzen badute. Portzentaje hori aplikatu eta gero, erabiltzaileari ez zaio inolaz ere urteko 276.000 pezeta baino gutxiago geldituko nahi duen bezala gastatzeko.

Egoitzan bizi direnek 23.000 pezeta dute hilero nahi duten bezala gastatzeko.

6. Zer nolako ikuskapenak egin dira gaur arte egoitzan eta zein alderdi zuzendu dira gobernu zentralako Lehendakariari eta dirudienez Gizarte Ongizate Departamentuari berari ere azaldukoetatik?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak urtero ezartzen du ikuskaritza plana, kontseilariak onetsi eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dena. Aurtengoa urtarrilaren 27ko 2/1998 Foru Aginduaren bidez onetsi zen, eta 1998ko otsailaren 6ko 16. NAO on argitaratu.

Agindu horretan biltzen da Zentroak eta zerbitzuak ikuskatzeko programa, zentro hitzartuen antolamenduaren, egituraren eta funtzionamenduaren kontrola finkatzen baitu.

Ikuskapen horretan, beti bezala, ondokoak hartu ziren aintzat: instalazioak, langileak, egoitzan bizi direnenganako asistentzia sanitario eta soziala, antolamendu eta funtzionamendua.

Zentro eta zerbitzu hitzartuetan, aintzat hartzen dira hala indarra duen hitzarmena nola Gizarte Zerbitzuen arloko Baimen, Arau-hauste eta Zehapenen gaineko 9/1990 Foru Legea garatzen duen maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuan xedatutakoa.

Vencerol zentroaren kasuan, bertan bizi direnei garbiketa gaiak eman bai, baina beraiek ordaindu beharko dituztela ezartzen da.

Amaitzeko, ez dugu Arboniés andreak azaldu-tako salaketaren berri.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1998ko abenduaren 15ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Osasun Departamentuan langileak sustatzeko formulei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Osasun Departamentuan langileak sustatzeko formulei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko abenduaren 1eko 92. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abenduaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Osasun Departamentuan langileak sustatzeko formulei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gizarte ordezkariekin negoziatu eta itundu du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duen Foru Lege proiektu baterako proposamena.

1. Osasun Departamentuak lanbide karrerako espezialitateak izendatzeko dituen irizpideak, espezifikazio zehatzaren arabera.

Hor duzu 1. artikulua. Aplikazio eremua.

1.- Foru Lege honek arautzen duen lanbide karrera sistema Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua Erakunde autonomoaren langileei aplikatuko zaie, beti ere lanpostua jabetzan badute, baldin eta lanpostua eskuratzeko eta lanposturako izendatua izateko honako tituluetakoa bat izatea eskatu bazitzaie: Medikuntza eta Zirujaki lizentziaduna edo Farmaziako lizentziaduna.

2.- Foru Lege hau ez zaie aplikatuko kupoko eta eskualdeko fakultatiboiei, eta ez udalen osasun langileei, non eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa eskualdaturik ez dauden, Toki Osasunean aritzen diren funtzionario gisa.

2. Lanbide-karrerarekin lortu nahi diren helburuak.

Hor duzu zioen azalpena.

Halatan bada, Foru Lege honek aurkezten duen lanbide karrera proiektuak bi zirkunstantziari erantzun nahi die: alde batetik lehenagoko sistema (antzinatasun hutsaren arabera egiten baitziren moldaketak eta soldatak) utzi eta sistema berri batera pasatu beharra, zeina merezimenduen eta emaitzen balorazioan ere oinarrituko baita; eta bestetik, 1996. urtetik Foru Lege hau aldarrikatu arte Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboiei lanbide karrera ez aplikatuak sortu duen problema konpondu beharra, horrek kalte egin baitie langile horien asmo-esperantzei.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arloan fakultatiboentzako lanbide karrera eredu bat sartzeari, gainera, osasun laguntzaren hobekuntza kualitatiboa eta kuantitatiboa erdiesteko helburu orokorraren barnean egiten da, honakoak bezalako alderdi oinarritzakoak ezarri eta garatuz:

a) Bideak zabaltzea profesionalek gehiago eta eraginkorrago parte har dezaten osasun zerbitzuen kudeaketan eta zuzendaritzan.

b) Pizgarri eta motibazio mekanismoak sartzeari, ahaleginak egoki bideratu eta lortzen diren emaitzak aitormena izan dezaten.

Alderdiok garatzeko honako ekintza larriak ezarri dira:

1.- Kasuko profesionalak berak izatea protagonista foru lege hau abiaburu duen lanbide karrera eredia aplikatu eta gero batean garatzerakoan.

2.- Ebaluazio sistema araupekoak definitzea, lanbide jardura ebaluatu, aitormena eman eta sartzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ingurune guztietan aplikatu ahal izateko adinako malgutasunarekin.

3.- Langilearen lan kalitatea, kantitatea eta erantzukizuna aintzat hartzen ez dituen soldata sistema bati akabera ematea.

4.- Arrisku eta berme orekatuak eta arrazoizkoak izatea.

5.- Bakoitzarengan eta osasun sistemaren ekonomia orokorrean eragin ekonomiko arrazoizkoa izatea..

3. Foru Gobernuak planteatuko al ditu lanbide karrera izan dezaketene beste lanbide batzuk? Zeintzuk?

Hona hemen ordezkari sindikalekin izandako negoziazioetako 8/1998 agiriaren 4. idatz-zatia, galdera honi erantzuten diona.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizaintzako diplomadunen lanbide karreraz den bezainbatean, horri buruzko hasierako azterlanari ekin eta hitzarmen kolektiboaren hurrengo negoziazioan tramitatzeke konpromisoa bere gain hartzeke prest dagoela azaltzen du Administrazioak.

Azaroaren bigarren hamabostaldian deituko du Administrazioak azterlan horri ekiteko lehen bilkura.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abenduaren 14an

Osasun Kontseilaria, Santiago Cervera Soto

Ikastetxeen eskola-jardunari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak ikastetxeen eskola-jardunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko abenduaren 16ko 95. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak galdera egin du ikastetxeen eskola-jardunari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Maiatzaren 8ko 489/1998, maiatzaren 19ko 498/1998 eta maiatzaren 19ko 499/1998 ebazpenek (ekainaren 10eko NAO) arautzen dute Nafarroako sare publikoko ikastetxeen zein ikastetxe itunduen 1998-1999 ikasturterako eskola-jarduna.

2.- Ondokoak dira indarra duen araudiarekin bat etorritako eskola-jardun jarraia baimentzeko irizpideak:

a) Ikastetxeko eskola batzordeak eskola-jardun jarraia eskatzea.

b) Eskola batzordean gurasoen ordezkari direnek berriaz onartzea eskaera hori.

c) Ez da baimenik ematen haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan eskola-jardun jarraia ezartzeko. Salbuespenak salbuespen, eta ikastetxe horien berezitasunak aintzat hartuta, baimena eman zaie, proba egitearren, ostiraletan goizez

soilik aritzeko Otsagabiako eta Garraldako haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoei, a) eta b) ataletan eskatutako baldintzak betetzean.

Ondokoak dira ikasturte honetan eskola-jardun jarraia duten ikastetxeak:

“EL HUERTO” IKASTETXEA (BIG. HEZK. eta UBI).- IRUÑA

“VEDRUNA” IKASTETXEA (BIG. HEZK. eta UBI)

ARTE ESKOLA.- CORELLA

ARTE ESKOLA.- IRUÑA

“ALAIZ” BHI.- BARAÑAIN

“ALHAMA” BHI.- CORELLA

“BASOKO”.- IRUÑA

“BENJAMÍN DE TUDELA” BHI.- TUTERA

“BIURDANA” BHI.- IRUÑA

“CARO BAROJA” BHI.- IRUÑA

“EGA” BHI.- SAN ADRIAN

“ETI” BHI.- TUTERA

“EUNATE” BHI.- IRUÑA

“ITURRAMA” BHI.- IRUÑA

“AITA MORET” BHI.- IRUÑA

“PLAZA DE LA CRUZ” BHI.- IRUÑA

“SIERRA DE LEYRE” BHI.- ZANGOZA

“TIERRA ESTELLA” BHI.- LIZARRA

“TOKI-ONA” BHI.- BERA

“PABLO SARASATE” BHI.- LODOSA

“SAN MIGUEL DE ARALAR” BHI.- ALTSASU

BHI.- BARAÑAIN

BHI.- LEKAROS-ELIZONDO

BHI.- TAFALLA

BHI.- ZIZUR NAGUSIA

"LA PAZ" DBHI.- CINTRUENIGO

"ELORTZIBAR" DBHI.- NOAIN

DBHI.- AZAGRA

DBHI.- CORTES

"IBAIALDE" BHI.- BURLATA

"ASKATASUNA" BHI.- BURLATA

3.- Departamentuak ez du eskola-jardun horri buruzko ebaluaziorik egin.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abenduaren 14an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

1998ko ekitaldian baso-sute gehiago izateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak 1998ko ekitaldian baso-sute gehiago izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko azaroaren 24ko 91. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urtarrila 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1998 ekitaldian baso-sute gehiago izateari buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Lehendakaritza eta Barne Departamentuaren beraren datuetan oinarritua:

1. Baso-suteen zerrenda. Hurrengoak aipatu: noiz gertatu den, udalerria eta zenbat hektarea kaltetu diren. Eragindako hektareetan, zenbat dira arboladiak eta zer espezieetakoak? Ingurugiro Departamentuaren ustetan, noraino da larri suteetako bakoitza?

Komunikabideek berehala behar izaten dituztenez, aipatu informazioan agertzen diren datuak –egindako galderak datu horietan oinarritzen dira– ez dira zehatzak, eta hortaz, gaurkotu egin behar

dira. Epe horretan 138 baso-sute gertatu zen Nafarroako Foru Komunitatean, eta horietan 195 hektarea erre ziren (77 arbolekin eta 118 arbola gabe).

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez ditu oso larritzat jotzen 1998an zehar eta gaur arte baso-suteek baso-ekosistemari eragindako kalteak, ez erretako azaleraren ez erretako lur moten aldetik ere.

Dena den, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak suteei buruzko azterketa egiten du 1998a bukatutakoan.

2. Baso-suteen gehikuntzari aurre egiteko, ohiko langileak aritu dira –hau da, Lizarra, Miluze, Zangoza eta Tafallan diren kanpainako lau parkeetakoak– edo giza-baliabide gehiago erabili behar izan dira? Behin-behineko behatoki gehiago jarri al dira, behintzat, normalean erabiltzen diren 17 behatokiez gain?

Suteak sortzeak ez du zerikusirik zaintzaileak edo suhiltzaileak izatearekin, ez eta horien kopuruarekin ere.

3. Zeintzuk izan dira lehen aipatu suteak eragin dituzten arrazoiak? Ingurugiro Departamentuaren ustetan, zein da suteen kopurua lehertzeko arrazoi nagusia?

Gertakari naturalek eragindako suteak albo batera utzita, gizakiaren erruz pizten da gehiengoa; izan ere, normalean arrisku handirik ez dakarten ekintzak arduragabeak izatera heldu eta sua sorraraz dezakete baldin eta une jakin batean, esate baterako, erregai begetalaren

dimentsio, forma eta kontzentrazioak, edo haren hezetasunak, edo tenperaturak eta hezetasun erlatiboak halako maila hartzen badute, faktore horiek izaten direlako ezbeharraren sorreran benetako eragina dutenak.

Sutea hedatzeko faktoreen artean, arestian aipatutako faktoreak ez ezik, kontuan hartu behar dira ondokoak ere: haizearen abiadura, lurraren pendiza...

Suteak iraungitzeko zerbitzuaren lanez den bezainbatean, berezko zailtasun eta arriskuei gehitu egin behar zaizkie, dagoen landaretza kontzentrazio handia eta sarbide erabilgarrien falta direla-eta, euren gauza-baliabideak erabiltzeko trabak eta zerbitzu horretako kideen segurtasunarako arrisku handiagoa.

Suteak –ez baso-suteak soilik– iraungitzeko eraginkortasuna lotuta dago giza zein gauza baliabide egokiak (bai kopuru aldetik bai ezaugarrien aldetik) ezbeharrak gertatu den tokira heltzeko behar duten denborarekin, zenbat eta beranduago heldu kalteak areagotu egiten baitira.

Suteen kopurua handitu egin bada ere, "suteen kopurua lehertu" dela esatea, galdera egitean esaten den gisa, neurrigabea dela ematen du.

Azken sei urteotako baso-suteak ondokoak izan dira:

URTEA	SUTE KOPURUA	AZALERA (HEKTAREAK)		
		ARBOLEKIN	ARBOLA GABE	GUZTIRA
1993	223	190,11	622,53	812,64
1994	227	1547,24	1269,80	2817,04
1995	323	420,21	2319,07	2739,28
1996	330	196,99	718,34	915,33
1997	314	160,59	630,39	790,98
1998*	383	192,08	453,56	645,64

* Urriaren 15a arte

Epe horretan Nafarroan eman diren baso-sute handienak, sugarrek hartutako azalerari erreparatuta, Subitza, Gongora, Arbontze, Orbaitz, Tuter, Atondo, Corella, Orisoain, Makirriain, Guesa, Barga, Puiu, Viana, Lodosa, Olleta, Oibat, Arroitz eta Artaxoan gertatu dira.

4. Bestelako entitate, erakunde edo administrazioekin lankidetzan aritu al dira aipatu baso-suteak itzaltzeko? Zeinekin eta zein kasutan?

Baso-suteak itzaltzeko Nafarroako Suitzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko bitarteko guzti-guztiak erabiltzean dira, alegia, egun dauden hamar suhiltzaile parkeek parte-hartzen dute, baso-kanpaina

edo sasoiaren horien zerbitzua indartu zein indartu ez.

Aurreko urteko sasoi berarekin konparatuta, zerbitzuaren giza bitartekoak 27 lagunekin indartu ziren sasoi horretan.

Baso-suteak itzaltzeko lanak beti koordinatu izan dira ukitutako entitate eta udalekin, eta, hala behar izan denetan, agintari zein administrazio autonomiko edo internazional mugakideekin.

Nafarroako Suitzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren eraginkortasun maila egokitzat jotzen da gaur egun. Hori balioesteko erabil daitekeen neurririk sinpleena bide da sute bakoitzeko batez beste zenbateko azalera erre den kalkulatzeko, eta epe horretan, hain zuzen ere, 1'41 hektarea erre zen sute bakoitzeko; nahiko esanguratsua berez.

5. Nafarroako Gobernuak, zer jarduketa aurreikusi du edo abiarazi nahi du 1999ko kanpainari eraginkortasun handiagoz ekiteko? Nafarroako Gobernuak, zer jarduketa egiten ari da edo egiteko asmoa du kaltetutako aldeak bereonertzeko? Zein kasutan?

Ezin daiteke jakin zein izanen den epe ertain eta luzera baso-suteen arazoaren bilkaera, eta orobat ezin daiteke egin epe horiei buruzko eguraldi-aurreikuspenik, eta eguraldiak, esan bezala, baso-suteak sortu eta hedatzerakoan berebiziko eragina du. Horrenbestez, 1999an eutsi egingen zaio suak itzaltzeko indarra duen planari, arazoaren bilakaeraren arabera unean uneko jarduketa zein neurri osagarriak hartzea edo dispositiboa bera indartzea ezertan galarazi gabe.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez ditu oso larritzat jotzen, ez erretako lurren azalerarengatik ez horien izaerarengatik ere, baso-ekosisteman 1998an gaur arte baso-suteek eragindako ondorioak.

Edozein kasutan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak sutei buruzko azterketa bat egingen du 1998. urtea bukatutakoan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abenduaren 21ean

Lehendakaria eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

Zenbait komunikabideetan agertutako enplegu publikoko iragarkiei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak zenbait komunikabideetan agertutako enplegu publikoko iragarkiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko abenduaren 1eko 92. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999k urtarrilaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ezker Abertzalea Parlamentuko Taldeko Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du zenbait komunikabideetan agertutako enplegu publikoko iragarkiei buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1.- Joan den irailaren 27ko egunkari batean eta beste zenbaitetan ere azaldu dira iragarki batzuk honelako izenburuarekin "Oferta empleo público Comunidad Foral de Navarra". Iragarki horiek enpresa pribatu batek eginak izan dira eta jende askorentzat trikimailu hutsa gertatu dira, bere itxuratik beste zerbait zirela pentsa zitekeelako. Alboan igortzen dut iragarki horietako baten fotokopia.

Iragarki horiek argitara emateko eskatu al diote baimenik Nafarroako Gobernuari? Jakinaren gainean al zegoen alde zuretik Nafarroako Gobernuari? Nafarroaren izenetakoren bat (esate baterako, Comunidad Foral de Navarra) erabiltzen denean edo erabili nahi denean iragarki batean, ¿ez al daukate egunkari eta aldizkariak esana alde zuretik erabilera hori baimendurik dagoela

ziurta dezaten? ¿Zein dira Nafarroako Gobernuak orain arte hartutako neurriak bereak diren izenak zaintzeko erabilera pribatuetatik?

2.- Aipatutako iragarkiak Nafarroako Gobernua jakinaren gainean egon gabe eta inolako baimenik eman gabe egin baldin badira, ¿zein dira ondoren hartutako neurriak? ¿Aztertu al dira iragarki horiek? ¿Aipatu al zaie zerbait iragarki horiek argitaratu dituzten egunkariei?

Nafarroako Gobernuak, apirilaren 27ko 144/1998 Foru Dekretuaren bidez, 1998ko enplegu publikoko eskaintza orokorra onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitaterako zein haren erakunde autonomoetarako, beste zenbait eskaintza partziaz gain. Foru dekretu hori 1998ko maiatzaren 18ko 59. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

Foru dekretu hori aipatzen zenetan, aipamena benetakoa zen.

Hori guztia gorabehera, ebitaezina da prentsan agertzea galderarekin batera doazen iragarkien modukoak, Nafarroako Gobernuaren ikurrak erabili ez eta aipatu eskaintza horretako lanpostu batzuk, batzutan lanpostuen izenak gaizki emanda, hartzen dituztenak.

Horrela, bada, ez da bidezkoa egintzak abiaraztea, ez baitago auzitan Nafarroako Gobernuaren edo beste erakunde batzuen irudi korporatiboren erabilera.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abenduaren 21ean

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria, Rafael Gurrea Indurain

Sotos de Traslapuate-n zentral hidroelektriko bat jartzeko proiektuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Sotos de Traslapuate-n zentral hidroelektriko bat jartzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urriaren 19ko 79. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Sotos de Traslapuate lekune naturaleko zati batean zentral hidroelektriko bat jartzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer egoeratan dagoen prozesu guztia eta zer pauso eman den gaur egunera arte, Parlamentuan apirilean egindako agerralditik hona, lege-aldaketa batzuk egin eta kontraprestazio jakin batzuk lortzeko asmoz.

Onetsi egin zen ekainaren 1eko 178/1998 Foru Dekretua. Horren bidez, aldatu egin zen “Sotos de Traslapuate” (EN-11) lekune naturala eta lekune natural berri deklaratu zen “Soto de los Tetones” (EN-28), horrela Nafarroako naturguneen sarean sartuz.

Modu horretan, berdindu egiten dira Soto de la Mejanako zentral-txikiak (Soto de Traslapuenteko zati denak) hartzen dituen 3 bat hektareak eta Soto de los Tetoneseko 1.104 hektareak, zentral-txikiarekin iparraldetik muga egiten baitu Soto de los Tetonesek.

Gobernuak 1998ko uztailaren 6an erabaki zuen baimena ematea, ingurugiro eta hirigintzako ondorioetarako, Soto de Traslapuenten zentral-txiki hori eraikitzeko. Orobat ezarri zituen ingurugiro eragina zuzentzeko neurriak ere.

Azaroaren 12an, Ebro ibaiaren plan berezia –Tuterako tartean– Tuterako Udalak urriaren 30eko osoko bilkuran onetsia, igorri zuen udal horrek departamentu honetara, eta departamentua behin betiko onespena tramitatzen ari da.

2.- Aipatu proiektuaren aurkako zer jarduketaren berri duen Ingurugiro Departamentuak, eta zer balorazio egiten duen horietaz.

Zentral-txikiaren proiektuaren kontrako iritzirik ez dugu zuzenean jaso, izan ere, jarduera sailkatua jendaurrean egon den bitartean ez da haren kontrako alegaziorik jaso. Halere, Ebro ibaiaren Tuterako tartearen plan bereziari buruzko iritzia ezagutu izan dira plan berezia jendaurrean egon den bitartean Tuterako Udalak jaso dituen alegazioen bidez.

Iritzi horiei dagokienez, departamentuak gogora ekarri nahi ditu ingurugiro eraginari buruzko azterlanaren ondorioak. Hona espresuki zer dioen:

Behin zentral-txikia egin eta proposaturiko neurri zuzentzaileak aplikatu arren gelditzen diren eraginik nabarmenenak ondokoak izanen lirateke:

Paisajeari eragindako kaltea, eraikinak eta instalazioak eraikitzen datorrena. Bateragarri eta ertainaren artekoa da haren balioa.

A. Ibai zein ibai bazterreko habitateko 33.000 m² galtzea Soto de Traslapuenteko lekune naturalean (EN-11). Galeraren balioa bateragarri eta ertainaren artekoa da.

B. Materialen pilaketa posiblea, Molinarreko presako irletan, garrantzi gutxikotzat jotzen da.

C. Proiektuaren zenbait alderdi osatu eta aldatzea ekarriko du ingurugiroko kalteen azterlanaren analisi zehatzago batek. Oro har, baina, esan daiteke ezen Tuterako Molinarreko presaren ondoan zentral-txiki bat instalatzeak eta horrekin batera datorren aprobetxamendu hidroelektrikoak ez dutela kalte larrikeria eraginen ingurune bakoiko ekologiko eta paisajistikotzat.

Orobat azpimarratu behar da ibarbasoa ez dela batere kaltetuko nahiz eta Soto de Traslapuate (EN-11) lekune naturaleko 3,3 hektarea desafektatu, ze, ingurugiro eraginaren azterlanaren ondorioz, hustubidea handik desbideratuko baita. Salix zuahixka-gune bat, fauna izateko gaitasun eskasekoa, neurri txiki batean kaltetuko da.

Baztertuta Habitat zuzentzarauko II. eranskineko taxonen integritaterako eragina eta ikusita Elkarterako Intereseko Leku (EIL) izateko proposatu den lekune horren kontserbazio-balio bakar bat ere galduko ez dela, adierazi egin behar da

3,3 hektareako desfektazio hori ederki asko kontsatsatzen dela birrezarpen printzipioaren arabera alboko Soto de los Tetoneseko 110 hektarearekin zein Lekune Natural deklaratu eta EIL gisa proposatzeko konpromisoarekin, horrela eginez gero % 31 handituko bailizateke ibarbaso babes-tuen azalera Ebro ibaiaren lehenbiziko 10 kilometrotan Tuterako udal mugapean eta segida bat eratuko bailizateke ibaiaren bi bazterretan, horrek dakartzan onura ekologiko guztiekin.

3.- Europako Parlamentuko Eskari Batzordetik jakinarazpen edo oharrik izan duen ustez egin diren salaketen ondorioz. Baiezkoan, zertan dautzan.

Ez da jakinarazpen edo oharrik jaso Europako Parlamentuko Eskari Batzordetik.

Jaso den eskaera bakarra Europako Batzordeko Ingurugiro, Segurtasun Nuklear eta Babes Zibilerako Zuzendaritza Nagusiak egin du, informa-

zioa eskatu baitu Habitat naturalen eta basafauna eta-floraren kontserbazioari buruzko 92/43/EEE zuzentarauaren zein Proiektu publiko eta pribatu batzuek ingurugiroan duten eraginari buruzko 85/337/EEE zuzentarauaren aplikazioari buruz.

Horrenbestez, Europako Batzordeko Ingurugiro, Segurtasun Nuklear eta Babes Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren idazkian galdetutakoari baizik ez dio erantzun departamentuak. Erantzunean esaten den bezala, proiektu horrek ez dakar aipatu zuzentarauak gaizki aplikatzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko abenduaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo

Osasun zentrokek jaiegunetan duten funtzionamenduari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Osasun zentrokek jaiegunetan duten funtzionamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko abenduaren 16ko 95. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Osasun zentrokek jaiegunetan duten funtzionamenduari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1) Azaroaren 30a jai zen Iruñean, eta Zizur Nagusiko osasun zentroa itxita zegoen, herri horretako biztanleei inongo abisurik eman gabe, ixteko arrazoiekin. Nondik aterea zen aipatu zentroa ixteko agindua?

Zizurko Osasun Etxean Iruñeko jaiak hartzen dira beti, arrazoi askorengatik:

Langileak, gehien bat, Iruñean bizi direlako.

Zizurko biztanleak, gehien bat, Iruñean lan egiten dutelako.

Azpikontsultorio bat duelako Iruñean -Etxaba-koitx-.

Edozein modutan ere, aparteko egoera bat da, baina urtero-urtero errepikatzen da, guztion onerako delakoan.

2) Iruñetik kanpoko zein osasun-zentro itxi ziren azaroaren 30ean, eta zergatik?

Iruñeko osasun etxeez gainera, jai eguna baimendu zen Berriozar, Barañain, Zizur, Mutilola, Atarrabia eta Antsoaingoetan.

Horiek guztiek jaieguna izaten dute Iruñeko zaindariaren egunean beren zaindariaren egunean izan ordez.

3) Zergatik ez zuten egun horretarako larrialdi-zerbitzua aurreikusi General Solchaga zentroan, Bideko Ama Birjina ospitaleko larrialdi-zerbitzuak gainezka egin ez zezan?

Azaroaren 30a, astelehena, eta azaroaren 23a, astelehena, alderatuta:

	30-N	23-N
SOS-Nafarroara eginiko deiak	300	230*
Bideko Ama Birj. Ospitalean izandako larrialdiak	195*	171
Bideko Ama Birj. Ospitalean sartutakoak	33	28

* Beste adibide batzuk jartzearren, azaroaren 22an, igandean, 360 dei izan ziren SOS-Nafarroan, osasun kontuengatik; Bideko Ama Birjina Ospitalean 203 larrialdi izan ziren.

Bideko Ama Birjina Ospitaleko buru den Sesma doktorearekin hitz egin eta bere zerbitzua ez zela inolaz ere kolapsatu adierazi zigun.

Azaroaren 30ean, astelehena, Iruñean jai eguna zenez, urteko edozein jaiegunetan dauden zerbitzuak ezarri ziren.

– General Solchaga anbulatorioa 24 orduz egon zen irekita, asteburuetako laguntza osagarriekin.

– Burlata, Ermitagaña eta Rotxapeako zentroak 8etatik 20etara egon ziren irekita.

– Burlatako LZBak ere goizetik funtzionatzea aurreikusi zen -beharrek gora egin zezaketelakotan-, nahiz eta osasun etxea ez zen itxi, Iruñean baizik ez zelako jai eguna.

4) Egia al da Vianako Printzea kanpoko kontsultetarako zentroak ez duela kontsultarik hartuko, ez eta bestelako zerbitzurik emango erradiografia, kasu abenduaren 4an (ostirala) eta 7an (astelehena)?

1998ko abenduaren 4an eta 7an, Vianako Printzea Kanpoko Kontsulten Zentroa irekita egonen da eta kontsultak izanen dira. Berdin zentro horretako radiologia zerbitzua.

5) Zubia hartzea edo Nafarroatik at joatea guztion esku ez dagoenez, eta, jai edo zubi izan arren, osasun laguntza behar duten arazoak gertatzen direnez, nola antolatu da Nafarroako biztanleentzako osasun-laguntza abenduaren hasierako jaietan, Iruñean eta Iruñerrian, batez ere?

Hurrengo “zubietan”, abenduaren 3an eta 8an, edozein jaiegunetako zerbitzu berdina izanen dira. Abenduaren 4an eta 7an beste edozein egunetan bezala eginen da lan osasun etxeetan.

Esan beharra dago, Iruñeko LZBko zuzendari medikoak eta haren Erizaintzako buruak ahalmen eskuordetua dutela edozein unetan kontratuak egiteko behar diren sendagile edo erizainekin. Hori noizean behin gertatu da; hori egin eta berehala zuzendaritzaordeak egoera hori arauz beteko du.

Laguntza espezializatuko kontsulten zentzorei dagokienez, irekita eta funtzionamenduan egonen

dira abenduaren hasierako lan egunetan; izan ere, haien jarduera guztiak programatutakoak izaten dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 12an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Lan Osasunari buruzko Foru Lege proiektua bidaltzea atzeratzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Lan Osasunari buruzko Foru Lege proiektua bidaltzea atzeratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko abenduaren 16ko 95. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Lan Osasunari buruzko Foru Lege proiektua bidaltzea atzeratzeari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1) eta 2) Gobernua nabarmen atzeratu da Lan Osasunari buruzko Foru Lege proiektua Biltzar honi bidaltzeko garaian. Zer gorabeherak eragin du atzerapen hori? Zer fasetan dago Lan Osasunari buruzko Foru Lege proiektuaren prestakuntza?

Laneko arriskuei aurrea hartzeari buruzko Legea nahiz Espainiako Gobernuak haren 6. artikulua arioren emandako erregelamenduko arauak dira lan legeria, Konstituzioko 149.1.7 artikulua babesean emana. Hain zuzen ere, 6. artikulua horri zein Europako Batasuneko zuzentzaruei jarraikiz hainbat errege dekretu eta ministroaren agindu argitaratu dira. Lan legeria estatua-

ren eskumen eskusiboa da, ez ordea hura beteaztea, hori autonomia erkidegoen eskumena baita. Hortaz, lan xedapenen esparruan, Foru Komunitateak ez du legegintzako eskumenik, baina bai legeria Nafarroan aplikatzeko. Jakina, horretarako bidea ez da foru lege bat.

Osasun arloko eskumenei dagokienez, Osasunari buruzko Foru Legeak indarrean dirau, bete-betean iraun ere, batez ere laneko osasunari buruzko kapituluak. Gai horri buruzko lege berri batek ez luke deus berririk ekarriko, foru lege horretako edukinak eta erregelamenduaren garapen egokia, neurri handi batean eginik baitaude, nahiko direlako. Azpimarratu egin behar da Nafarroa izan zela lehen autonomia erkidegoa prebentzio zerbitzuak kreditatu eta baimentzeko irizpide sanitario eta teknikoak (1998ko apirilaren 27ko NAO).

Azkenik, Nafarroako Gobernuak enplegatu publikoei dagokienez, Gobernuaren beraren arauak definitzen dituzte laneko osasun eta segurtasunari buruzko eduki bereziak, batez ere Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuak eta Laneko arriskuei aurrea hartzeko arautegia Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen esparruari aplikatzen dion apirilaren 20ko 135/1998 Foru Dekretuak, funtzio publikoko esparruko sindikatuen ordezkariekin negoziatu ondotik argitaratu baita.

Laneko Osasunari buruzko Planaren proiektua urria eta azaroa bitartean aurkeztu zen Nafarroako Lan Osasunaren Insituaren gobernu kontseiluan eta Nafarroako Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kontseiluan, non ordezkaturik baitaude admi-

nistrazio publikoak eta sindikatu zein enpresa erakunde nagusienak. Nafarroako Gobernuak gutxi barru onestiko bide du plana, bai eta onetsi eta berehalakoan Nafarroako Parlamentura bidali ere.

Laneko Osasunari buruzko Foru Legeak ezin ditu ukitu lan legeriako esparruak, zeren, batez ere, Laneko arriskuei aurrea hartzeari buruzko Legeak zein hura garatzeko araudiak hartzen baitute bere baitan lan legeria; horrela eginez gero, arrisku bizia egonen litzateke Estatuarekiko eskumen gatazka sortzeko. Gainontzeko arloetan, hau da, osasunari zein enplegatutako publikoari buruzkoetan, foru legeria nahiko dugu Nafarroan, eta hortaz, lege berri batek ez luke deus berririk ekarriko.

Laneko istripuen arazo larria ez da gertatzen, gaur egun, arau ezarengatik, Espainia aitzindaria baita gai horri buruzko Europako zuzentarauak ekartzean, baizik eta haien aplikazioarengatik eta, batez ere, laneko segurtasun eta osasuna ulertzeko modu berriaren ondorioz sortu den prebentzio-kulturak islarik izan ez duelako enpresa eta lantokietan. Gai horri buruzko foru lege berri bat egitea, beraz, alferrikakoa litzateke, ze arau nahiko dago argitaraturik eta ezin izanen da deus berririk ekarri, esperantza faltsuak ez badira.

3) Istripuen kopuruak bere horretan dirauenez, eta Estatuko legediak gure Komunitatean bete gabe jarraitzen duenez, zergatik murriztu edo izoztu dira osasuneko aurrekontu-kontusail batzuk 1999rako; besteak beste, laneko arriskuei aurrea hartzeko, laneko osasun unitateak abiarazteko eta laneko osasunaren arloko ikerketa eta jarduketarakoak?

Laneko arriskuei aurrea hartzeko arautegia Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen esparruari aplikatzen dion apirilaren 20ko 135/1998 Foru Dekretuak xedatutakoari jarraiki, hiru prebentzio-zerbitzu sortu ziren, Lehendakaritza eta Barne Departamentuaren, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren eta Osasunbidearen menpekoak

hain zuzen ere. Arautegi horri jarraikiz, Nafarroako Lan Osasunaren Insitutuak utzi egin zion enplegatutako publikoari buruzko hainbat funtzio betetzeari, eta horrela, unitate berrien esku utzi behar izan zituen giza-, gauza- eta aurrekontu-baliabideak ere.

Laneko osasun eta segurtasunari buruzko programei zuzendutako kontusailak –Nafarroako Lan Osasunaren Insitutukoak, unitate berrietakoak eta Lehendakaritza eta Barne Departamentuari nahiz Hezkuntza eta Kultura Departamentuari nahiz Osasunbideari atxikitako laneko arriskuei aurrea hartzeko zerbitzukoak– ez dira gutxituko, eginen dena izanen da zenbatekoak beste modu batera banatu horien artean.

Hortaz, aurrekontua ez da gutxitu, beste modu batera banatu baizik. Enplegatutako publikoaren ordezkari sindikalekin negoziatu ondotik, haien esparru berezira egokitu zen laneko arriskuei aurrea hartzeari buruzko arautegia, unitate organiko espezializatu berekiak sortzean. Modu horretan, banatu egin ziren Nafarroako Lan Osasunaren Insitutuaren betekizun nagusiak, Foru Komunitateko langile guztiei zuzenduak, eta Nafarroako Gobernuak, enpresa gisa, bere langileekin dituen betekizunak. Nafarroako Lan Osasunaren Insitutuak behin-behineko zituen betekizunak banatze horrek aurrekontuen banaketa ekarri du noski.

Horrela, adierazi bezala, aurrekontua gutxitu barik, laneko arriskuei aurrea hartzeaz den bezainbatean gehitu egin da Nafarroako aurrekontuetan (Osasun Departamentua, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua, Lehendakaritza eta Barne Departamentua eta Hezkuntza eta Kultura Departamentua).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 8an

Osasun Kontseilaria, Santiago Cervera Soto